



PIARRES LAFITTE

MAÑEX ETCHAMENDY

BERTSULARIA
(1873 - 1960)

1 JUN. 1976



MAÑEX ETCHAMENDY
BERTSULARIA
(1873-1960)

AUSPOA LIBURUTEGIA
109-110

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 — Tolosa
(Gulpúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio de
S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

ORDAINDU BEARRAK:

Urte betekoa: 485 pezeta

Ongilleak: 800 »

Atzerrian: 640 pezeta

Ale bakarra: 60 »

PIARRES LAFITTE

MAÑEX ETCHAMENDY
BERTSULARIA
(1873-1960)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1972

Doñu-lana: *Ambrosio Zatarain jaunak.*

© Auspoa Liburutegia
Tolosa (Guipúzcoa)

Depósito Legal. S. S. 171/72
IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Abril 1972

AURKIBIDEA

Aintzin solasa	9
Mañex Etchamendy (1873-1960)	11
Bertsu-ontzailea	22
Mañex Etchamendy-ri	26
Amerikatik urte on	30
Soldadogoan	34
Sor lekuaren amodioa	42
Katixima eskuararen alde	49
Firma gabeko apez jale bati	52
Elizari	55
Ez jakin zer ari diren	60
Ele ederreri ez fida	65
Aitaren eskalapoinak	69
Laboriaren alde	73
Mañex artzaina apezgaien adixkide eta ongi- -egilea	76
Mañexen koplak	81
Apezgaieri	86
Urrundik urte on	93
Mendi-gaineko Mariaren konfesioa	96
Emazter besta on!	101
Tobera-munstra batzuez	104
Mañex ttipiaz	107
Ezterenzubi	109
Beilariaren ixtorioa	113
Bi gerla handiren ondoan	117
Uholdetik landa	121
Gerlaren ondorioz	125
Kazeta Eskualduna-ren fagore	128

Halako anderer eta heien idurikoer pertsu ber- ritan bi hitz	132
Segeturik ez sala	139
Petirisants edo gosetea	145
Ezkontza	150
Egur-bazkari batez emanak	154
Ama Birjinari	158
Xahar baten auhen saminak	162
Katoliko batasuna	166
Alargunsa erre kardaria	171
Lurraren uzteaz	179
Ixtorio-mixterio	185
Obedientziaz	190
Senpereko itzulia	193
Ixtorio-mixterio, haurrentzat	199
Bakeaz	206
Eskualduna-ren itzal-pean	211
Eskualdunen batasunaz	215
Sosaren esklabotasuna	220
Nevadako artzainari (I)	224
Nevadako artzainari (II)	227
Nevadako artzainari (III)	231
Itsasoaz bestaldean diren eskualduneri eske- rren bihurtzeko	235
Xapelketa	239
Erraxu, Koxe	242

AINTZIN SOLASA

Aita Antonio Zabala euskalzainak, jakinki-eta Ezterenzubi-ko Mañex Etchamendy zenari arras atxikiak ginela, eta haren bertsu andana bat baginituela bilxluak, eskaini zaukun, duela zombait ilabete, heien ager-araztea, «Auspoa» bere liburu-sail famatuan.

Berehala on-hartu ginuela, ez duda: segur eskerrik kartsuenak diozkagu eskaintza hortaz.

Gure lanaren bururatzeko laguntza beharretan bait-ginen, Luis Ehuletche Ezterenzubi-ko Jaun ertorari dei egin gion. Ez ginezaken nehor hoberik kausi. Alabainan, herri-etxeko segretario izaki, Mañex Etchamendy biziki hurbildik eza gutua, haren bertsu-kaier-bat eskuratua, familia ere ez urrun, ahaidekin hartaz mintzatzeko, argitza ile baliosenatarik izan zaiku eta zor handitan gira haren alderat.

Ezterenzubi Etxart-eko Etchamendy

jaunak ere bere osaba zenaren asko berri baliosez argitu gaitu nasaiki.

Bertzalde nola ez aipa Michel Mouesca gure adixkide gaztea, makinan ezin polikiago jo bait-dauzku bertsu guziak, inprimeria edo irarkolako prest izaiteko gisa.

Orori, bada, gure eskerrik hoberenak.

Eta orai bi hitz, bai Mañex Etchamendy zenaz, bai haren bertsu-lanaz.

MAÑEX ETCHAMENDY
(1873-1960)

Garazin, Eiheralarreko ibar zolan bada herri pollit bat: Ezterenzubi. «Xaldainia» erraiten zioten laborari-etxe bat bazen Errobi ibaiaren iturburuetararat deraman bidearen bazterrean. Orai ez da gelditzen etxe horren hatzik ere.

Han sortu zen Mañex Etchamendy.

Huna herriko etxean sortzetako liburuan zer irakur ditaken 1873-eko zazpigarren aipamenean:

L'an mil huit cent soixante treize, le vingt du mois de Mai à dix heures du matin, par devant nous, Maire, officier de l'Etat civil de la Commune d'Esterencuby, canton de Saint-Jean-Pied-de-Port, département des Basses-Pyrénées, est comparu Etchamendy Jean, âgé de trente ans, laboureur, domicilié à Esterencuby, lequel nous a présenté un enfant du sexe masculin, né aujourd'hui à deux heures dans la maison Chaldainia de lui déclarant et de Marie Etchebarne, âgée de trente un ans, ménagère son épouse et auquel il a déclaré vou-

loir donner le prénom de Jean, les dites déclaration et présentation ont été faites en présence de Jean Larrondurugaray, cordonnier âgé de quarante ans, et Bernard Arinty instituteur âgé de vingt quatre ans, les deux domiciliés à Esterençuby et ont, les témoins, signé avec nous le présent acte de naissance, après qu'il leur en a été fait lecture, ce que n'a fait le déclarant pour ne savoir écrire:

Le Maire Etcharren.

Lerro horien arabera, Jean Etchamendy sortu zen 1873-ko maiatzeko hogoiean, goizeko bi orenetan. Haren aita, Jean Etchamendy, hogoita-hamar urteko laboraria zen; ama, Marie Etchebarne, hogoitahameka urteko etxekanderea. Aitak ez zakien izkiriitzen.

Eta huna parropiako bataio-ageria:

L'an mil huit cent soixante treize et le vingtième du mois de Mai, en l'église paroissiale d'Esterençuby, je, soussigné, curé, ai baptisé Jean, né hier, à Zaldaïnenia, de l'union légitime de Jean Etchemendy et de Marie Etchebarne, jeunes sieur et dame de Zaldaïnenia.

Le parrain a été Jean Etchebarne, oncle maternel, représenté par Jean Etchemendy, vieux sieur de Zaldaïnenia et la marraine Jeanne Etchemendy, vieille dame de Ba-

lentinena lesquels n'ont pas signé pour ne le savoir. F.L. Bourbotte.

Hemen ohar ditake bai deitura bai etxearen izena aldatuak direla (Etchemendy eta Zaldainenia), eta sortzeko eguna ere bai: maiatzaren hogoiean bataiatua izan zela, bezperan sorturik, beraz 19-an.

Itxuren arabera, Bourbotte jaunak 21-ean egin zukeen bataioa, bainan bezperan izkiriatu sortzetako liburuan.

Dena dela, jakiten dugu aitatzitzat hartu zutela Jean Etchebarne amaren anaia, bainan Jean Etchamendy Xaldaineko nausi xaharra agertu zela haren ordain, amatxi zelarik Balentineneko etxekandere xaharra, Jeanne Etchamendy. Ez zakiten izkiriitzen, ez batek ez bertzeak.

Bai herriko bai elizako paperetan «Jean» deitua gatik, etxezoek eta bertze herritarrek ere Mañex erranen zioten. Funtsean, aspaldiko usaia da gure fami-lietan, izen frantses ofizialaren orde, eskuarazkoa ekartzea.

Mañex sor-etxean handitu zen, aita-ama eta haurriden artean. Zortzi haurride ziren: hiru neska eta bortz mutiko. Orroitzapen hoberenak atxiki zituen egun hetaz. Bertsutan ziona bere ahaidez:

Ez dugu kausitzen guk heiekin
Bizi egunez hoberik,
Ez eta heien parerik,
nahiz ez ginduen mainarik,
Zeren garen pobretarik

Hiruzpalau urte ibil-arazi zuten herriko eskolan lehen kominioea egin arte, eta gero etxen lotu zitzaion laborantzari.

Xortean, osasun hazkarrekoa ez izanez, ez zuten on-hartu: soldadogoaz egin zituen koplak, lagunek galdeginik mol-datu bide zituen aire-buruka.

Geroari buruz sos puxka bat bildu beharrez hogoi-ta-bat urtetan Ameriketarat joan zen, Wyoming eskualderat.

Hango oihanetan lanean eman zen anaia batekin. Bertze lagun bat ere bazuen Ezterenzubiarra, geroxeago haren koinata beharra.

Bi anaiek ezin elgar adituz edo lana bortitzegi kausituz, Mañexek Nevadarat jo zuen, han artzain jartzeko. Bere bertsetan emanen du bizitze garratz horren berri; oihan-beltz, desertu, hartz-lehoinen orroa, ohoin basa,... ukanen du zer aipa!

1899-an itzuli zen Ezterenzubirat, aita-amen etxerat.

Emazte-gaia, ez dakigu ea Ameriketa-

rat joan gabe begiztatua zuenetz: kople-
tan ez du hartaz behin ere hitzik erran.

Zer nahi den, ezkondu zen 1900-ko api-
rilaren 26-an Marie Ampo deitu herritar
batekin; andre horrek hogoi urte zituen;
haren aita-amak ziren Munoineko Jean
Ampo eta Gratianne Biscaichipy.

Marie ezagutu dutenek diote burudun
eta bihotzduna zela, orori ohartua, lan-
gilea, hurrekin larderia zuena, fede han-
dikoa.

Berrogoi-ta bortz urtez behar zuen Ma-
ñex lagundu biziko gora-beheretan. Zen-
du zen 1945-eko maiatzaren 6-an, familia
eder bat hazi-ta ahal bezain zuzenki.

Mañex eta Marik ukan zituzten hamar
haur:

1) *Jean*, 1901-eko martxoaren 7-an sor-
tua, 1913-ko agorrilaren 20-ean hila.

2) *Jean*, 1902-ko maiatzaren 29-an sor-
tua, oraino Ameriketan bizi dena.

3) *Bernard*, 1904-eko otsailaren 7-an
sortua, aitaren segida hartu zuena eta
1963-ko abendoaren 23-an itzali zena.

4) *Jean-Baptiste*, 1910-eko hazaroaren
3-an sortua, Ahatsarat ezkondu-eta han
bizi dena.

5) *Marie*, 1912-eko uztailaren 23-an sortua. Pauen hila 1968-ko buruilaren 19-an.

6) *Pierre*, 1914-eko uztailaren 8-an sortua, 1940-eko ekainaren 2-an Ardenetako guduan hila.

7) *Marie*, 1916-eko urriaren 10-ean sortua. Ortesen serora dena.

8) *Gratianne*, 1919-ko maiatzaren 27-an sortua, Ortesen serora zelarik 1946-eko urtarrilaren 6-an hila.

9) *Jean-Pierre*, 1921-eko ekainaren 26-an sortua, Ezterenzubin 1924-eko martxoaren 16-an hila.

10) *Arnaud*, 1924-eko abendoaren 28-an sortua, Ahatsarat ezkondu-eta han bizi dena.

Beraz, orotarar, zazpi seme eta iru alaba. Hamar haurretarik oraino bortz bizi dira, 1971-n.

Oixtion erran bezala, Ameriketako itzulitik landa, Mañex Etchamendy Xaldainian jarri zen eta ezkondu. Bainan etxe zahar hartan ez zuen hanbat laketzen. Bertze nunbait egin gogo zuen egoitza.

Hain xuxen, Gilentoinian bazen etxe-kandere bat haurrik gabea eta, ziotenaz, goiz edo berant bere etxaldea saltzekotan zena.

Mañex etxalde hortaz nahikatu zen, mintzatu zuen jabea eta, ikusirik ez zuela diru aski eroste horren egiteko, deliberratu zuen Ameriketarat berriz ere itzultzea.

Ez zen sakrifizio ttipia!

Marie hiru haur ttipirekin utzirik, Nevadarat joan zen bigarren aldikotz, han lau urte iragan bait-zituen (1905-1909).

Hantxet artzain-lanen artetik poxi bat eskolatu beharrez, irakurtzen eta izkiriatzen zuen. *Eskualduna* bururen buru iragaiten zuen heldu zitzaionlarik, eta horrela ikasten zituen sor-lekuko berri larrienak. Frantses liburu zonbait ere bazituen, eta guti edo aski entseatu zen anglesaren marruskatzerat.

Haren seme gehien Mañex Beloken eskola-lagun bait-ginuen 1912-an, orroit gira angles kanta batzu emaiten zauzkula, aitaren ahotik ikasiak.

1909-an gure artzaina etxeratu zen sos zerbaitekin.

Gilentoiniaz nahiko zuen berehala tratua egin. Bainan —nunbaitik ere!— jabeak anaia bat Ameriketara izanki, eta haren baimenik gabe deusik ezin antola. Hura herrirat itzuli arte luzaz behartu zitzaioten haiduru egon.

Azkenean, 1920-ean Mañex jabe sartu zen Gilentoinian.

Hor sortu zitzaizkion bi seme gaztenak, bertze zortziak Xaldainian jin zitzaizkiolarik.

Gizona nolakoa zen? Azken denboretan metra eta hirur-hogoi-ta-hamabortz zentrimetra gorako norbait zen, bilo xuria, begiak urdin, begitartea luzaran, larrua argi, sudurra ez handi ez ttipi. Ez zuen indar gaitzekoa iduri. Itxuren arabera buru-lanetako gisago izanen zen eskulane-tako baino, biziak hautua eman balio.

Ez zen halere xoko batean muxitzekoa: zinez laborantza eta hazkuntza gogokoak zituen, eta funtsez heieri emana zen, molde berriak estimatzen zituela.

Ihiztari ernea zen, ala urtzoka, ala erbika, ala berdin basurden ondotik.

Igerikari ona, urpeka bazabilan arraina bezala, arrain-keta.

Nahiz pilota-jokoa eder zitzaion, ez zen behin ere bera pilotaria izan.

Libertimendu gisa musean laket zuen eta, diotenaz, ez zen maleziarik gabe.

Salatu daukute «gizon pollita» zela: gogo erne argia, oro zentzu; artetan irriño

batekin zirtolaria, gaixtakeriarik gabe; baketiar deliberatua, edozoin nahigabe ixil-ixila jasaiteko prest, ez nahiz bera zinkurinaz ari izan eta are gutiago nehor ere deusetan bortxatu. Hots, errotik gizona!

Fededun suharra, bertzalde: pentsamendua, elea, bertsua aise lerratzen zitzaizkion erlisione-gaietararat. Urratsak ere bai: bere azken hogoi urtetan segurik, erran daukutenez, ez zuena egun guziez kominiatzen bere animaren hazteko?

Liburu huntan irakurleak ikusten ahalko du nola Mañexek Ameriketarik apezgaien alde bai sosak bai koplak igorri zituen eta zoin usu luma hartu zuen Elizaren fagore. Mgr. Gieure apezpikuak ordainez esker onezko presentak hel-arazi ziozkan Nevadarat, eta Larresoroko eskolier ohiek makila eder bat (1907).

Horiek hola, nor estona haren familia-tik bi serora jalgirik eta 1913-an galdu semea apezgaia bait-zen?

Mañex Etchamendy, 1920-etik aintzina, bere nahitara «giltzain» jarri zen elizan. Toki batzuetan «klaber» edo «operario» erran lezakete. Mgr. Terrier jaun apezpikuak hortako medailatu zuen 1955-eko maiatzaren 30-ean, Ezterenzubiko konfir-

mazione-egunean, Diosesako zerbitzari on eta jarraiki bezala.

Gizon seriosaren fama egina bait-zioten, ez zuen segur ebatsia.

Bainan «serios» hitz horrek ez du erran nahi ez hotz, ez idor, ez ilun, ez triste.

Berak ziona bertsu batean:

Ez naiz irrien etsai
ez eta xauxuna,
Nahiz egin dautaten
seriosaren fama.

Familian eta konpainietan alegera zen: ixtorio kondan ez zuen parerik.

Ez zabilan jendetzeari ihesi: Donibane-merkatua ez zuen deusetan huts eginen; jarraikia zen bilkuretarat: zindikak, biltzar ala bertze. Beha zagon bertzen erraneri; bainan, bere aldian, ez zen herabe mintzatzeko, sekulan oihurik egin gabe, beti bere buruaren jabe, hala beharrez doi bat arralleria ezpainenetan.

Maiz haren ganat bazoatzen jendeak argiketa, abisu onekoa zelakotz; eta denen zerbitzuko.

Ezterenzubiarrek 1929-an herriko kontseiluan sar-arazi zuten, eta kontseiluak gero auzapez izendatu.

Ez zitzaioten dolutu nehorri. Herriaz arta hartu zuen deplauki. Bertzeak bertze, adinekoak orroit dira egin edo berritu zituen bidez. Egia erran, gider onak ere bazituen: Giliard, Laplace, Bouret, Luis Inchauspe; eta bazakien nola balia heien adixkidantzaz.

1934-etik hasi eta hamar urtez, lagunek hautaturik, Garaziko zindikatean bere herriaren gizon ere izan zen.

1944-ean, 71 urtetan, pentsatu zuen kargu hoik behar zituela gazteagoeri utzi: ez zen gehiago presentatu deusetarat.

Auzapez zeno, gauza pollita ikus zitaken Ezterenzubin: elizan Mañex jaun mera giltzain gisa jaun erretoraren mutil, eta herriko etxean jaun erretora jaun meraren meneko, segretario izanez!

Etchamendy gaixoak bere azken hamabortz urteak alargun eta erixka iragan zituen.

«Xaharren min-biziak» 87 urtetan eraman zuen Jainkoa ganat 1960-eko apirilaren 28-an. Bezperan oraino ezagutza osoan zen, giristinoki oren handiaren beha zagolarik.

BERTSU-ONTZAILEA

Mañex Etchamendy ez da behin ere tipus-tapas ahotik hortzera bertsuka ari izan, gure plazetako bertsulariak bezala. Alde batetik boza ttipia zuen, eta bertzetik ez zen hortako bere buruari fida. Hermandorena jaunak nahiko zuen bildu molde hortarat, bainan ihardetsi omen zion:

«Ez segurki, Espainia eta Frantzia guzia saritzat emaiten bazinauzkit ere!»

Ez zen hitz hoitan erdeinurik: bertsulariak miresten zituen eta bereziki Xalbador estimu handitan zaukan bere funtsezko ateraldien gatik.

Mañexek bertsuak astiki eta izkiribuz ontzen ohi zituen: maiz gauaz, loa jin artean, asma, eta biharamunean paperean ezar.

Zonbait aldiz, bazkal-ondo batzuez eman dituenak aintzinetik guti edo aski apailatuak ziren.

Nun, noiz, norekin hasi ote zen bertsu ontzen?

Parte, odolean zuenetz gaude: Luzaideko Juan Echamendy «Borddel» fama-tuarekin (1792-1879) ahaide urrunekoa zela, salatu daukute; egungo egunetan ere Etxamendy-tarretan ez da bertsu-egile eskasik, ez Europan, ez Ameriketan. Guhaurek ezagutu ditugu Lamarque kalonje olerkari baionesa, Mañex Etchamendy Buztintzekoa. Ezagutzen dugu Eñaut kantari miresgarria bere dizko berriarekin...

Itxuren arabera, gure Mañex-ek ez du erakuslerik ukan.

Eskualdun kantu andana bat ikasirik, bera ohartu zitakeen nola moldatuak ziren eta bera hasi, denbora pasa, molde bereko bertsu egiten.

Diotenaz, Ameriketan, anaiak zonbait aldiz erasiatzen zuen, baizik eta luma aikora baino hobeki zerabilala!

Zer nahi den, guk eskuratu haren bertsurik zaharrenak 1895-eko urte-berriz eginak ziren, hogoi-ta-bat urtetan, eta azkenak 1954-ean, laueta hogoi eta bi urtetan.

Bere bizian ontu kopla gehienak igorri izan zituen aldizkarietarat. *Eskualduna* xaharra, *Euskal-Erria*, *Eskualdun Ona*, bigarren *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Herria* izan ziren argitaratzaileak. Zonbait bertsu bakar agertu dira han edo hemen: ikus *Eskualdun kantaria*, *Gure Almanaka*, *Errepikan*, *Milla euskal olerki eder*.

Lanak bere izenaz sinatzen zituen: *Mañex Etchamendy*, bainan ez beti. Haren izen-ordetan aurki ditazke: *M. E.*, *Mañex Artzaina*, *Bortuko Aitatxi*.

Nahiz errotik garaztarra zen eta bere eskualdeko eskuara ezin pollikiago zera-bilkan, bertsetan aise lerratzen zitzaion luma Lapurdiko mintzairerat eta hizkuntzak nahasten zituen. Berdin baliatzen zituen: *maitea* eta *maitia*; *jin* eta *etorri*; *igorri* eta *bidali*; *anderer* eta *anderei*; *zeie* eta *zaiote*; *gare*, *gira*, *girade* eta *gaituzu*; eta holako zonbat! Zonbait aldiz kantak manatzen zion berttua; bertze batzuetan ez dugu arrazoinik ikusten: behar bada uste zuen kostatarra ospatsuagoa zela, baxenabartarra baino? Nork daki?

Gaiak ardurenean funtsezkoak zituen, prediku-aireño batekin. Dugun aitor ha

ren denboran jendek suiet gogoetagarriak hainitz estimatzen zituztela, hala nola *Manamenduak*, *Nahi balinbagira hil-eta salbatu*, edo *Larramendiren azken bertsuak*. Kantu serioz hoik berdin eztaietan kantatzen zituzten bazkal-artean. Mañexen koplak ez izanik ere hain idor eta ilunak, hari serioz hortakoak dira, baina usu iduripenez, parabola edo ixtorioz apainduak.

Huna haren bertsetan goraipaturik aurkitzen ditugun ekai handiak: Jainkoa, Sor-lekua, familia, bakea, batasuna, adixkidantza, artzaingoa, laborantza, leialtasuna, nor bere hartan segitzea, biziaren errespetua, urrikalmena, herriaren zerbitzua, ohiduren begiratzea, bertzeak bertze.

Hortakotz haren koplak etxe askotan oraino ere artoski atxikitzen dituzte eskuz kopiaturik edo aixturrez pikatu gazeta-xerrenda batzuetan.

Ez da erraiteko baizik, haren obrak izan duela laudatzaile. Bertzeak bertze, huna nola haren ilobaso Mañex Etchamendy Bustintzekoak bertsetan goretsi zuen 1956-eko urtarilaren 26-an:

MAÑEX ETCHAMENDY-RI

Airea: *Aire zahar pollit batean
hamalau pertsu berri.*

- 1/ Suiet berri baten hasterat
oraintxe naiz abian:
Begiztatua ere nuen
iragan aspaldian.
Huna zer kasu pasatzen den
ene izpiritian:
Bortuko Aitatxi gogo dut
laudatu en'aldian.

- 2/ Alde batetik maitatua,
ta bertzetik oseba,
Laudorioen emaiteko
zur'illoba gose da:
Hauk baino hobiak merezi
zintuzke baitezpada,
Kontseiluz xuxendu baituzu
anixko eztabada.

- 3/ Ez baititake uko egin
sortzezko gustuari,
Laurogoi urte iraganak,
ta oraino koblari:
Mandatu hau egiten diot
eskualdun jendeari,
Denek igor dietzatzugun
agur minenak zuri.

4/ Baigaituzu pertsu zuhurrez
beti zuzen argitu,
Zer zitaken ongi ta gaizki
aski untsa garbitu,
Ez dugu erranen ahalko
ez dugula aditu,
Gaizki guzia geroxago
behar dela patitu...

5/ Iragaiten ahal bagine
mundu huntan sainduki!
Bainan beti trixteak gira
zorigaitzez egoki!
Aitatxi, diozun bezala,
entsegatuz hobeki,
Ateak gintuzke zeruan
behar zabal ideki!

6/ Urte berri hastapen huntan
hauze zait gogoratzen,
Ez laike pollit hau ahantziz
bazintut zu kitatzen:
Oseba maitea, urte on
derautzut desiratzen,
Ta graziak ere ardiets,
zer ba-duzun galdatzen.

7/ Laster akabatzen baitzeraut
koblakako kolpea,
Nahiz ixilik egoiteaz
dudan joko hobeaz,
Bi desira kartsu banuzke:
zu ontsa izaitea,
Eta zombait pertsu oraino,
zureak, ikustea.

8/ Pertsulari xaharragorik
ez baita hemen gaindi,
Eta hobeagorik ere
Ez da biziki sendi...
Desir nuke buruzagiek
banezate konprendi,
Zerbait gisaz gorets dezaten
oi Mañex Etchamendy.

Gainera, 1958-an, maiatz-igande batez, Donibane—Garazin, adixkide bertszuzale batzuek bestaño bat muntatu zioten. Bere burua ez ontsa sendituz, ez zen etorri ahal izan bazkarirat. Halere otoan Donibanerat lagundu zuen norbaitek kafeko. Bi hitz xarmantekin Luis Dassance Eskualzaleen Biltzarreko jaun buruzagiak urrezko medaila bat ezarri zion papoan. Medailak alde batean Ama Birjinaren

aurpegia bazaukan eta bertzean hitz hauek: «Mañech Etchamendy Bertsularien Aitasori. 1958». Inguruan ziren bertsulariek ateratu ziozkaten aldizka gorespenik hunkigarrienak, bereziki Xalbatorrek. Damurik nehork ez bait-zituen mañetofonez bildu.

Liburu huntan, irakurle maitea, zuhaurek jujatzen ahalko duzu zer bertsu sarkorrak ontu zituen Ezterezubiko Mañex Etchamendy-k.

Segur Garazi ohoratu du eta eskualdun guziek zor diogu agur handi bat.

P. LAFITTE.

AMERIKATIK URTE ON

Airea: *Ikusten duzu goizean.* (1)



(1) Airea: Santesteban-ek bezala, neurria Altu-
be-k bezala jarririk.

- 1/ Sortu gintuzun holetan
Gu iragan denboretan,
Gero ezarri troxetan.
Asko aldiz, ai, ama maiteak
Mantenatu bularretan,
Atxikirik besoetan,
Aitak ere belaunetan,
Gero fite haztekotan.
- 2/ Hazi gintuzun gazterik,
Aita-ameri gostarik,
Ez, hortaz ez dut dudarik.
Ez dugu kausitzen guk heiekin
Bizi egunez hoberik,
Ez eta hoi en parerik,
Nahiz ez ukan mainarik,
Zeren garen pobretarik.
- 3/ Hortakotz diot egia,
Zeren den gauza argia,
Guretzat dela legia:
Aste guzia lanian artzia
Irabazteko ogia,
Begiratu zuhurtzia,
Iragaitako bizia,
Aita-amez orroitzia.

4/ Ait'amez gare orroitzen
Eta begiak bustitzen
Urrun baigira kausitzen.
Gur'haurrean hek bazakiten
Bai gure ongi altxatzen,
Etsenplu onen emaiten;
Gutaz ziren urrikaltzen.
Eskerrak ditut bihurtzen.

5/ Aita-amek pena asko
Jasan dute guretako,
Bai gure ongi hazteko.
Urte on deiet desiratzen ta
Jeinko onak laguntzeko,
Osasun on emaiteko,
Luzaz bizi-arazteko,
Gero zeruan biltzeko.

6/ Ama Birjina maitia,
Gutaz miserikordia!
Atxik guri bertutia.
Aita-ameri eta umeri
Nasai iguzu grazia:
Uroski gure bizia
Iragaiteko guzia,
Gero zeruko loria.

Mañech Etchamendy
Kalifornian 1895-eko
urte berriz eginak

Euskal-Erria, XXXII, (1895) p. 183. Huntan agertu bertsuetan bada kanbiamendu. Lehen koplan eta bigarrenean «gintuzu» irakurtzen da «gintuzun»-en ordez; bigarrenean «aurkitzen» «kausitzen»-en ordez eta «nahiz ez ginduen» «nahiz ez ukan»-en ordez; hirugarrenean «ariz» «hartzia»-ren lekuan; laugarren bertsuan berriz ere «aurkitzen» «kausitzen»-en lekuan, eta «gur'haurtasunean» «gur'haurrean»-en ordez; eta «diztegu» «ditut»-en plazan. Bortzgarrenean, irakur ditake «urte on dugu desiratzten ta» eta azken lerroak ekartzen du: «zeruaz gozatzeko». Kaiereko seigarren koplan diren ideiak bi kopletan ezarriak dira:

6/ Ama Birjina maitea,
 Zato gure laguntzera
 Baitugu behar ordua:
 Bai mundu huntan segi dezagun
 Zerueta bidea,
 Otoiztuz zure Semea
 Hark dezaikun onestea
 Biten diogun galdea!

7/ Zeruko Jainko handia,
 Gutaz miserikordia,
 Atxik guri bertutia.
 Aita ameri eta umeri
 Zuk emaguzu grazia:
 Uruski gure bizia
 Irragaiteko guzia,
 Gero zeruko loria.

SOLDADOGOAN

Airea: *Oilanda gazte moko fier bat.* (1)



- 1/ Mila zortz'ehun lauetan hogoi
Ta amazpi-garrena,
Erresumaren zerbitzatzeko
Hunat etorri garena.
Penan direnen kontsolatzeko
Orai izan dut ordena,
Nahiz ez dutan ene gradoa
Ofizioan lehena.

(1) Airea: Sallaberry, 1870, 339 orri-alde.

- 2/ Zorteak deitu izan gintuen
Beraz, adixkide onak,
Soldadogoaren egiteko,
Oro elgarren lagunak.
Bai eta laster anaiak gare
Hemen guziz eskualdunak,
Aberats ala pobre izanik,
Elgarrez estimu onak.
- 3/ Bai Xuberotik, bai Lapurditik
Eta Baxenabarretik
Etorri izan gira guziak
Hunarat Eskual-herritik.
Bizi berri bat ere kausitzen
Hunara jinez geroztik,
Pena guziak jasanen tugu
Frantziaren ona gatik.
- 4/ Eskual-herrian, libertatian,
Eder zen gure loria!
Ez baita nihun ere kausitzen
Ez zorion bat hobia.
Giltzen azpira da aldiz hemen
Maiz konplimendu garbia,
Burua gogor duen xoria
Laster kaiolan sartia.

5/ Hunat jiteko utzi ditugu
Gure sor-leku maiteak,
Gure burraso eta haurride
Bai eta adixkideak.
Zer bihotz-mina ezarri zaukun
Heietarik partitzeak!
Herriko gure lagun maiteri
Adioren erraiteak!

6/ Geroztik hemen izaiten dugu
Bada zerbait nahigabe,
Nik erran gabe badakizue
Guziek dudarik gabe.
Larderiarik handienez,
Libertatiaz ez jabe,
Pena hau dela medio gare
Beraz hemen dohakabe.

7/ Horrengatikan eztugu behar
Ez lege hori kasatu:
Zeren bakotxak gure aldian
Behar baitugu pasatu.
Eta Frantzia maitea ere
Behar dugu begiratu,
Bakotxak gure egin-ahalaz
Behar dugu sustengatu.

8/ Beraz sobera gogoeta're
Ez dezagula ez egin:
Pena guziak jasan ditzagun,
Bai pazientziarekin.
Libertatia izanen dugu
Bai segur denborarekin,
Eskual-herrian gero gozatuz
Gure herritar maitekin.

9/ Penen kentzeko trinka dezagun
Hustuz zonbait baso arno,
Libertateko egun ederra
Guri etorri artino.
Gero guziek elgarrekilan
Erranen dugu oraino:
«Biba, biba, zu, Libertatia,
Gau et'egunak diraino!»

Mañex Etxamendi

M.E. ez da sekulan soldado izan. Bertsu hoik lagun batzuek galde eginik egin bide zituen. Noiz eginak? *Eskualdun kantariak* ekartzen du; mila zortzi ehun eta lau hogoi eta *hemeretzigarrena* behin; bertze edizione batean *hemezortzigarrena*; M. E.-ren kaierak *hamazazpigarrena*.

Kaierekoak ezarri ditugu.

Huna segidan *Eskualdun kantaria*-n nola kantu hau agertu zen «Soldado laguneri» tituluarekin. Kaieran bertsuak xuxendu zituena eta bortzgarren kopia kendu, ez baitira hamarren orde, bederatzi baizik gelditzen.

SOLDADO LAGUNERI

1/ Mila zortzi ehun eta lau hogoi eta hemeretzigarrena,
Frantziari zerbitzuaren
errendatzen garena;
penan direnen kontsolatzeko
orai izan dut ordena,
nahiz ez den ene gradua
ofizioan gorena.

2/ Zorteak deitu izan gaitu
beraz, adixkide onak,
erresumaren zerbitzuko
oro elgarren lagunak;
eta laster anaiak gare
oi guziz eskualdunak,
aberats ala pobre izanik
elgarrez estimu onak.

3/ Xuberotik, Lapurditik,
eta Baxenabarretik,
etorri izan gira hunat
urrun Eskual-herritik,
zer ikusi behar ote dugun
asko gogoeta eginik,
bizitze berri bat hasten baitugu
hemen kausituz geroztik.

4/ Eskual-herrian libertatian
eder zen gure loria,
nun aurkitzen ahal ote da
zorion bat hobia?
Hemen aldiz giltzen azpira
maiz kunplimendu garbia,
gure esklabotasunaz dute
guti miserikordia.

5/ Eskual-herrian bezala hemen
ez dugu kausituko
karta-yokoak eta pilotak,
oneski libertitzeko;
bainan bada beste yokorik
guri xangrin emaitako,
Jainko Yauna dut otoizten beti
pazientzia hartzeko.

6/ Utzi behar izan ditugu
gure sor-leku maiteak,
burrasoak, haurrideak,
eta adixkideak;
zer bihotz-mina eman daikun
orduko gure zorreak,
gure lagun maite heieri
adio erraiteak!

7/ Geroztik hemen izaiten dugu
bada zerbait nahigabe,
nik erran gabe badakizue
orok dudarik gabe;
larderiarik handienez
libertateaz ez yabe,
pena horren medioz gare
beraz hemen dohakabe.

8/ Horrengatikan ez dugu behar
lege hori kasatu,
zeren bakotxak bere aldian
behar baitu pasatu;
eta Frantzia maitea
guk behar begiratu,
bakotxak gure egin-ahalaz
behar dugu sostengatu.


9/ Beraz sobera gogoeta
ez dezagun, ez, egin,
penak jasan behar baitira
pazientziarekin;
libertatea etorriko da
bai segur denborarekin,
Eskual-herrian gozatzeko
gure lagun maitekin.

10/ Arte huntako penak ditugu
ixilik sofrituko,
libertateko egun ederra
guri etorri artino;
gero guziek elgarrekin
erranen dugu oraino:
Biba, biba, zu, libertatia,
gau et'egunak diraino!

Mañex Etchamendi,
Esterenzuby'arra.

SOR LEKUAREN AMODIOA

Airea: *Lili eder bat badut nik.* (1)



1/ Gure sor leku maiteez
zonbat ez gare orroitzen!
Arrangurarikan baizen
ez dut nik hemen aditzen.
Egundainotik bakotxa
bere minak du eritzen:
Ni ere neure kasuaz
orai hasten naiz mintzatzen.

(1) Airea: *Sallaberry*, 1870, 244 orri-alde..

2/ Ez naiz Aitoren semia,
erran behar dut egia.
Arrandaz ene hazteko
Etzuten egin legia.
Hortakotz utzi izan dut
behingotz neure herria,
Ameriketan bazela gauza
Noizbait jakinik berria.

3/ Oi gaztetasun zoroa!
nun derabilan gogo!
Orduko pentsamenduak
iduri baitu hegoa:
Iñorantzian utzi dut
damurik nik sor lekua,
Udan herritik jin eta
hemen kausitu Negua.

4/ Adio herria eta
adio egun ederrak;
Adio Aitek hautatu
etxea eta bazterrak.
Burrasoak, haurrideak,
gazteak eta zaharrak:
Hedoi beltz batek ni baitan
itzali ditu plazerrak.

5/ Udazkenean urtzoak
pasaian dire partitu,
Hala hala naiz ni ere
neure herritik airatu.
Hedoi artetikan mendi
gora batean pausatu.
Hemen denbora behar dut
beti penetan pasatu.

6/ Ikusten ditut bazterrak
egunaz mendi gainetik.
Itsaso gaitza aldean
uhainak zabal-zabalik.
Bertze aldean ageri
zelai luzeak ederrik...
Bainan oi ene bihotzak
ez du heietan plazerik

7/ Amerikarat jin nintzan
izpiritua arinik.
Geroztik nago, ondikotz,
bortz pentsaketa eginik.
Gaztean ez dut aditu
gizon zuhurren erranik,
Gero dut ongi frogatu
kasuak hala emanik.

8/ Oi lagun gazte maiteak,
maiz zuetaz naiz orroitzen.
Zuen ganik urruntzea
zombat etzeraut gostatzen,
Gutiak dire hemengo
bizi moldeaz gustatzen!
Nik ere hunat jiteaz
ez zaituztet ez sustatzen.

9/ Zaudete beraz trankilki
zuen herrian bakean,
Zuhurki lana maitatuz
zuen ait-amen aldean,
Jainko legea segituz,
beti, behar den heinean.
Harek dohatsu egiten
gaitu lurraren gainean.

10/ Sor lekuan izaitea
zuentzat zer zoriona!
Bai handizki egia da
eskualdunak diona:
«Herrialde guzietan
toki ederrak badira,
Bainan bihotzak diola:
zoaz Eskual-herrira!»

11/ Bai orroit gaitezen beti
gur'arbasoen erranez,
Orroit aita onek
egin dituzten indarrez.
Herria azkar bai eta
gora atxiki beharrez,
Lagunt ditzagun guk ere
guziek gure ahalez.

12/ Bai, Eskual-herri maitea
Herri guzien ama da.
Ameriketa on eta
ederra dela fama da.
Bainan han ere antzara
bere mokuaz ala da;
Nahi duenak sinetsi,
hori segurki hala da.

13/ Laster nahi naiz ni ere
neure herrirat itzuli,
hemengo bizi moldea
nihaurek baitut ikusi:
Fortuna egin ustean,
herratua naiz ibili,
Banua beraz hemendik
neure herrirat ihesi.

- 14/ Herria uztearekin
deuseren ez nintzen lotsa,
Urrearentzat bainuen
orduko neure ametsa.
Abiadan bezen arin
orai ere daukat moltsa,
Ordainez bizar ederrez
apaindua dut kokotsa.
- 15/ Bos'pa sei urte egon naiz
Amerikako kanpuan,
Fortuna on egitea
neraukalarik gogoan.
Bainan ez dut, ez, diru
ezartzekorik kanpoan:
Ez dute kesa beharrik
ene sosenzat bankuan.
- 16/ Fortuna arin eginik
dut Amerika utzia.
Bainan zer zori-ona den
berriz herrirat heltzia!
Harek aberastu deraut
handizki bihotz guzia:
Hemen nahi dut iragan
prestuki ene bizia.


17/ Negozioko jaunekin
ez naiz batere hantatzen,
Nihauren moltsa luzea
ez baitut urrez hanpatzen:
Bainan orai sor-lekutik
bokarioz dut kantatzen:
Munduko aberasterik
ez du Jainkoak galdatzen.

18/ Ezterenzubi herria,
ene sor-leku maitea!
Jainko Jauna, zuk, iguzu
gure artean bakea.
Zuhurki bizi dadien
beti Eskualdun jendea,
Eta begira fermuki
betiko gure fedea!

1903 ko abendoan.

KATIXIMA ESKUARAREN ALDE

Airea: *Xoriñoa norat hua
bi egalez airean.* (1)



1/ Lege berri bat badugu
gur'etsaiek egina:
Elizan ez dela haizu
eskuaraz katixima.
Eskualdun jende xeheak
bere hurrez du griña,
Frantximantez ez baitzaie
hobeturen arima.

(1) Airea: Sallaberry, 1870, 158 orri-alde.

- 2/ Ezkuaraz mintzo badire
apez hoiek elizan,
Legez zor zaioten paga
ez dezakete izan;
Kargudun handi horiek
indarraren gerizan
Apezen sosak ebatsiz
ari dire ohointzan.
- 3/ Frantsesik ez dakitener
frantsesez mintzatzea
Hori da, guziz elizan,
Jainkoaz trufatzea;
Ezagun da aise zer den
lege horren xedea:
Eskuara galduz dezagun
oro bat gal fedea.
- 4/ Sinesterik ez dutenek
arimako gauzetan,
Beren hautuzko herroka
dute alimaletan,
Xakurrik ez bada haizu
sartzerat elizetan,
Hek zer ikusteko dute
hango katiximetan?

5/ Eskualdunen nahia da,
eta nahi bortitza,
Gure apezak elizan
eskuaraz ditzen mintza;
Ederrago da eskuaraz
Jaun Goikoaren hitza;
Hunen aldean frantsesa
zaie mintzaira hitsa.

6/ Eskualdunak eskuarari
hain gare atxikiak
Nun harekin baiterauku
bat egiten biziak:
Guri eskuara maite hau
kentzekotzat Frantziak,
Hobe laite Frantziatik
baginte bereziak.

M. E.

1904-ko Martxoan egina

FIRMA GABEKO APEZ-JALE BATI

Airea: *Jakintsunen arabera*. (1)

1/ Apez-jale basa batek
erran baitu laidoka:
«Apezak burua xilo:
koroa duke marka!»,
Nahi diot egun eman
arrapostu koplaka,
Ez dezan nehor apezik
hemen goitirik joka.

2/ Errak, to, apez-jalea,
mokoa duk xorroxko!
Hi eta ni nor zer gaituk
jaun hoiien jujatzeko?
Guk deus ere etzakiguk,
hek bazakie asko:
Amost urte eskoletan
eman tie hortako.

(1) "*Txoriñoa norat hua*" aire ber bera da; 49 orri-aldean.

- 3/ Koroa lehen erregek
ziteian karreatzen.
Orai berriz garrait-sari
askotan duk ezartzen
Ez duk, ez, buru hutseri
holakorik eskaintzen;
Apeza ere koroak
handizki ohoratzen.
- 4/ Bazakiat izan dela
Jesusen hauzi hartan
Koroatze itsusi bat
Kristo trufatzekotan.
Zer huen hik ere nahi
xede gaixto beretan
Apez koroa aipatu
erdainu karkailetan?
- 5/ Apezak dik ohorezki
Jesusekin sofritzen.
bainan hik heure burua
nola ez duk ttipitzen!
Hihaurk duk heure zentzua
funtsik gabe agertzen
eta bihotz eskasia
perrentean salatzen.

6/ «Apeza ez nehoiz hunki
eroria badere»
Zioteian arbasoek,
eta badik kolore:
Jaunari eman direnak
Jaunarenak baitire,
Hek kolpatuz, kasu hura
ez dakian hasarre!.

7/ Aipatu dudan trixteak
ez du kuraia handi:
Gordeka paperak ditu
barreatzen hor gaindi!
Ez bada arras putruna,
argirat ager bedi.
Nik leialki sinatzen tut
bertsu hok: Etchamendy.

1905

ELIZARI

Airea: *Piarres itsasoan arraintzan edo
hamar manamenduen airean.* (1)



(1) Aire hauek: P. Lafitte-k igorriak.



1/ Egun nahi dautzute,
Eliza maitea,
Zure ganik urrundu
betikotz bakea.
Arimetan baituzu
hedatzen fedea,
Argitan erakusten
zeruko bidea.

2/ Etsaiak bereturik,
zuhaurren haurretan
Zure kontra zauzkitzu
altxatu harmetan:
Burdin-barra, marteilu,
aizkorak eskutan
Zure bortak aurtikiz
lurrerat pusketan.

3/ Eta heien laidoez
bihotza zaurtua,
Boz hunkigarri batez,
Eliza saildua,
Umilki deitzen duzu
Zure haur galdua:
«Itzul hadi ni ganat;
utz-ezak mundua!»

4/ «Enetzat herran biziz,
zer huke saria?
Eternitatearen,
pena latz-garria.
Izaiten baduk hire
hutsen urrikia,
Jinkoak eginen dik
miserikordia.»

5/ Barka, otoi, Eliza,
zure haur hoieri!
Zeren ez baitzakiten,
zer zitzaitzun ari...
Balakite zein zaren
perfet eta garbi,
Zure laidostatzer
ez laizke atrebi.

6/ Zure haur guzieren
erakusten duzu
Oro behar girela
zure ganat bildu.
Bakotxa gure hutsez,
apaldu, umildu,
Bide hortaz bakezko
estaturat heldu.

7/ Nahi dugu zurekin
atxikiz eskua,
Zure argiarekin
iragan mundua,
Eta hil ondokotzat
zure lur-saindua
Izan dadila gure
ezurren lekua.

8/ Herri batek lurrean
elizarik gabe
Iduri du ardiak
artzainikan gabe.
Ez balute berekin
norbait begirale,
Gizonen ontasunak
laster gal litazke.

9/ Jesus Jauna, zerurat
zu iganez geroz,
Zure ordain Eliza
hor dugunaz geroz,
Iguzu zor diogun
karrez, amodioz,
Orok maita dezagun
gure bihotz oroz.

Mañech Etchamendy

N.B. — Kopla hoik altxatu ditugu *Eskualduna* aste-
tekarian (1-1-1909). Baina 1906-1907-ko gertaka-
riak aipu baitituzte, uste dugu urte beltz hoitakoak
direla.

Paper berriki eskuratu batean Mañech Echamen-
dyk berak dio:

“Imitatio demboran eginak” (1906)

EZ JAKIN ZER ARI DIREN

Airea: *Neguaz primadera
zenean jabetu.* (1)



(1) Airea: *Kantuz*, 80.

- 1/ Ixtorio bitxi bat
heldu zaut gogora.
Ez otoi eni galda
delako kondaira
Nun noiz gertatua den,
ala den gezurra.
Kanorerik ez badu,
badauka biperra.
- 2/ Herri pobre bateko
meria zitaken,
Barneko zoladura
lur hutsez baitzuten.
Hantxet sator ausart bat
ari-izana zen
Pulo zikin batzuez
salaren funditzen.
- 3/ Kargatua izan zen
Simun oihan-zaina
Satorraren biltzeaz,
—ohorezko lana!—
Bizirik hartu zuen
sator hobenduna,
Kontseiluko gizonek
zezaten kondena.

- 4/ Kontseilua bildurik,
hango kalapita!
Auzapezak pozoina
gaztigutzat hauta,
Axuanta oihuka
zezatela urka,
Erretzearen alde
mintzo errienta!
- 5/ Bakotxak bazerasan
nahi zuen hitza:
—Kasola bat uretan
ito bagineza?
—Etsenplutzat atean
zertako ez itza?
—Lehertzen baginio
haintzurraz kabeza?
- 6/ Jakes guarda xoil-xoila
ixilik baitzagon,
Lagunak azkenean
jabeldu zitzaizkon:
«Gauza trenkatu gabe
ez gaitezke egon.
Zure zentzuak, Jakes,
ea ba zer dion?»

7/ «Hobendun batek aski
behar du sofritu.
Zuen sei gaztiguak
ezti tut kausitu.
Behar dugu satorra
garrazki punitu,
Bizirik ehorzterat
funski kondenatu!»

8/ Abisu eder horrek,
—segitu bazuten—
Satorra hiltzetikan
salbatu zukeien.
Guarda gizagaizoak
naski etzakien
Bere xede horrekin
zertarat ari zen!

9/ Mundu huntan ikusten
dugula holako,
Gaizkirako bezala
berdin ongirako,
Aise aitor nezake,
bizia lekuko.
Bi kasu aipatzen tut
guzien arteko.


10/ Juduek uste zuten,
Jesu-Kristo hilez,
Suntsituko zutela
betiko ahalgez.
Bainan pizteko sanja
tonban atxemanez
Jesus zoin ontsa etzen
trufatu hekiez!

11/ Elizaren etsaiak
fraileak kasatu
Eta munduan gaindi
herraz berduratu.
Fedepak gisa hortan
behar du hedatu,
Fedegaberi esker
orotan loratu!

Mañex Artzaina (1906)

ELE EDERRERI EZ FIDA

Airea: *Orriko xoria*. (1)



(1) Airea: *Kantuz*, 20.

- 1/ Elea beti ele da:
hitz hortaz orhoit gaiten.
Espantuak ez du deusi
baliorik emaiten.
Etsenpluak palatraka
gogorat zauzkit jiten:
Buhamiaren zaldiak
dauku argi egiten.
- 2/ Nabarregosen merkatuz
makiñuna ibilki,
Zaldi sal-geia sokatik
eremanez polliki.
«Ea, jaunak, hurbil zaizte:
balio du segurki!
Holako zaldirik ez da
edo bakan biziki...
- 3/ Hunki otoi zoin den gixen,
beha zoin den distira.
Zango, aztal, belaun, ixter,
oro ederrak dira.
Azote klaska entzunik,
pindarretan sudurra,
Haizea bezain zalua
baderama lasterra.

4/ Hunki bizkar eta hankak,
ez direnez karanak!
Kimaz ere ez da gaizki,
onak ditu haginak:
Belar, lasto, zahi, olo,
iresten ditu denak,
Laster asetzen duela
bazka den gutienak.

5/ Ea, jaunak, zuetarik
nork nahi daut erosi?»
Entzuleak guti-aski
hor ditu inarrosi.
Batto guzien artetik
galdeka ere hasi,
Deus tatxarik zaldiari
ez dakioken kausi.

6/ Makiñunak gaitziturik:
«Zaldi huni tatxarik?
Atxemaiten badiozu
estakuru mikorik,
Hiru ehun liberako
derauzkitzut beretik,
Ala motz eni lepoa
zintzur ondo-ondotik!

7/ Mintza gaiten tratuz-tratu,
mintza behar bezala:
Holako zaldia gero
ez da abre purtzila.
Nork eman nahi derauzkit
hoi-ta-amar pistola?
Kabesturua urrurik
uzten diot gainera...»

8/ Tartarika legun hoitaz
arras liluraturik,
Erostunak emaiten du
sosa bere moltsatik.
Buhamia, sosa zarpan
ihes doa zalurik...
Zaldi eder delakoa
ez zen itsua baizik!

M. Etxamendi (1907)

AITAREN ESKALAPOINAK

Airea: *Lili bat ikusi dut.* (1)



(1) Airea: Kantuz, 53; Azkue, 56.

- 1/ Aita zenak hiltzean
utzi orroipena
Goxoki sartua dut
bihotzean barna.
Ondikoz gal baneza,
enetzat zer pena:
Gutik uste luketen
aberastasuna.

- 2/ Nahi duzue jakin
zertaz mintzo naisen,
Ea joia zerbaitez
naizen urgulutzen.
Ez naiz girgileriez
batere grñatzen.
Has gaiten segretua
lañoki salatzen.

- 3/ Eskalapoin pare bat
dut neure sujeta;
Estrenatu gabeak,
hil zelarik aita.
Egin gogo zituen
ohetik jeiki-ta;
Herioak goizegi
ein zion bisita.

4/ Azken erreberrian
zituen aipatu:
«Beude urrun zapetak,
heiek naute hoztu!
Ekar eskalapoinak,
hetan baitut gostu;
Ile-galtzerdiekin
behar tut goxatu!»

5/ Ez badut begitartez
aitaren eiterik,
Bertzalde badut asko
haren heinekorik:
Kasko berdin gogorra
bonetaren petik,
Zango ttipi berdina,
bideko ernerik.

6/ Eskalapoin umezurtz,
ene izariko!...
Hil-mezatik (nigarrez
itzuli zeneko,
Amak heier so, zautan
erran bekoz-beko:
«Ba ahal tuk, orroituz,
noizbait ibiliko!»

7/ «Ibiliko ditudan?
oi, ama, ez duda!»
Geroztik urte oroz,
joan deneko uda,
Eskalapoin-aroa
enezat heldu da:
Hek soinean, neguko
gaitzik ez da konda.


8/ Bai ekentzen dautate
oinetarik hotza,
Hala-hala kar batez
sustatzen bihotza.
Gogorat heldu zaizkit
—hau dut hau laguntza—
Aitaren urrats zuzen
eta boz beratza.

9/ Orroitzapen horiek
mezuka ni baitan,
Nola neure burua
zaindu behar dutan
Etxeko guziekin
bide xuxenetan,
Ohorezki ibiliz
urrats guzietan.

Mañex Etchamendy (1907)

LABORARIEN ALDE

Airea: *Partitu nintzen herritik.* (1)



- 1/ Lur-bazterretan errege
Laborariak girade:
Nun sortu eta han dohatsu,
lanean betiere,
Bihotza beti alegre.

(1) Airea: Kantuz. 60.

2/ Argi deneko, laudetak
Hasten ditu bere kantak;
Nik ere pentze-alorretan
Jalgitzen tut nereak,
Lan denborako aireak.

3/ Mundua hor dut meneko,
Hedatua enetako;
Haizia musikan ari zait
beharrien goxoko;
Badut ere gai begiko.

4/ Enetzat mendiak berde
Eta zelaiak kolore.
Enetzat iturriak argi
bai eta fresko ere,
Ibaia dena kantore.

5/ Enetzat urdin zerua
Eta urre iguzkia.
Hori-gorri gau ederretan
erdi-lo ilargia,
Enetzat argi guzia.

- 6/ Eskalapoinak soinean
Banabil bide hoietan.
Lepoko-korbatarik gabe,
pedazuak galtzetan,
Eta urtutsik askotan.
- 7/ Hiritar alfer aseak
Eta karrikes goseak
Biek trufaz deitzen gaituzte
arto mindu jaleak,
Xixari pikatzaileak.
- 8/ Gizagaizoez zer dute
Xoilik zerbait izan uste?
Buruz, besoz, zangoz, behakoz
direla gure bete,
Frogatu behar lukete.

Mañex Artzaina (1907)

MAÑEX ARTZAINA
APEZGAIEN ADIXKIDE
ETA ONGI-EGILEA

1906-eko abendoan Frantziako gobernuak ebatsi zituen Larresoroko Semenariotipia eta Baionako handia.

Kaliforniatik Mañex Artzainak igorri ziozkan ehun libera apezgaiantzat Jaun Apezpikuari.

Becas apezak egin ziozkan zonbait bertsu *Eskualdun Ona* deitu astekarian (28-7-1907), Harrazpi bere izen-ordearen itzalpean.

Segidan ezartzen ditugu kopla horiek: bainan heien ontsa aditzeko, jakin behar da Pabeko prefetak debekatu zuela eskualdun makilen ibiltzea, eta Mañex Artzainak makila ospatu zuela, ondotik emanikako bertsu-aldi batean.

1/ Kantuz nahi dut erran
dakitan egia,
Nahiz bera mintzo den
ene nigarrez begia.
Mañex Artzainak dauka
arra arpegia:
Ez du nahi fededun
izan alegia.

2/ Kalifornia zolan
Mañex duzu bizi.
Han ere mota nasai
omen da ihizi.
Makilarekin Mañex
nork dezake izi?
Hartaz debrua bera
nahi luke hezi.

3/ Frantzian apez-gaiak
—Mañexek entzun du—
Debruak berak nahi
dituela zaindu,
Beren aterbetarik
nahi-ta-ez kendu,
Eta munduko keldar
lohiaz zikindu.

4/ Orduan Mañexek du
altxatzen makila,
Ote-zango guziak
xehatzen tuela;
Bet-betan hasten zaio
karrankaz okila,
Besainka dio bota
Mañexek opila.

5/ Irakit errexa du
Mañexek odola,
Eskualdun gehienek
dute hola-hola;
Egiazko bakeaz
duenak axola
Detzazke otoitzean
trebesak antola.

6/ Huna nun gure Mañex
den belaunka jartzen
Eta bere moldean
otoitzari lotzen.
«Zertako, Petri gisa,
Haiz Mañex, sumintzen!
Ez duk ez makilekin
debrurik garraitzen»

7/ Zeinatu-eta doha
mendia behera:
Bihotzak deramaka
gizon bihotz bera!
Apezgaientzat deusik
etzaio sobera...
Moltsatik ateratzen
tu ehun libera...

8/ Jaun Apezpikuari
baititu igorri
Apezgaientzat Mañexek
Bortz begi gorri,
Ni harentzat lekuko
nahi nintzen jarri
Eta Mañexen lana
kopletan ezarri.

9/ Senditzen dut bihotza
arras hunkitua
Ikusiz Eskualdun bat
fedeaz lantua.
Bai izan bedi «Mañex»
izen aipatua!
Eskualdun bihotzetan
barna landatua.

10/ Ez da bakarrik Mañex
fededun ageri:
Da oraino mendian
artzain pertsulari.
Makila bat banauka
emaiteko sari,
Gogotik eremanen
nioke berari.

Harrazpi

MAÑEXEN KOPLAK

Airea: *Sortu nintzan neguko
gauik hotzenean.* (1)

1/ Norte Ameriketako
eskualde batean
Mendiz-mendi nabila
artalden artean.
Martxo ilabeteko
gauaren minean
Apur bat gelditzen naiz
desertu batean.

2/ Izarrek zerutikan
dute distiratzan,
Mendi gora orotan
elurrak xuritzen.
Zerbitzu hoberena
zerk dautan bihurtzen,
Eskual-aire gozoan
hasten naiz kantatzen.

(1) Aire hau ez-ezaguna dugu.

3/ Hartz-lehoinek bakarrik
bainaute entzuten,
Beren orro saminez
dautet ihardesten,
Iduriz oiharzunek
harrokak airatzen,
Bainan horien gatik
ez naiz ikaratzen.

4/ Deusik hurbiltzen bazaut
gaizki egiteko,
Lagun bat ona badut
eskuan hartzeko:
«Eskualdun makila»
neure zerbitzuko.
Ni xutik nabilano,
hau ez dut utziko.

5/ Indio, Xino, Moro,
badire bakarrak!
Salbaiez beterikan
hemengo bazterrak...
Haukien aire eta
behatze samurrak
Laster ezitzen ditu
makilen beldurrak.

6/ Makila eder hori
mendian ibiliz
Arrotz batzuek dautet
behatu bortz aldiz,
Elgarri ziotela
jelosia haundiz:
«Ebats nirok bi sosen,
itzalean balitz.»

7/ Segi hadi enekin,
makila maitea!
Estimagarri zautak
hire ohorea;
Ai! hitaz gabetzeko
banu nik zortea,
Nola segi nezake
ene artaldea?

8/ Oihan beltzetan barna
ibilia gatik,
Ez duket zeren izan
otsoen beldurrik;
Makilattoa gora
altxatzen badut nik,
oro urruntzen dire,
zangoak arinik,

9/ Xori batek daut erran:
Eskual-herrietan
Makilak dagotzila
presondegietan;
Arrotzek, eskualduner
kendu eskutikan,
Ber-hetaz zafratzeko
nahikarietan.

10/ Behin kendua-gatik
berriz egiteko,
Ez dukete kreditik
lan horri lotzeko;
Milaka baditugu
berriak hartzeko,
Gure osasun eta
elizen zaintzeko.

11/ Bertzeren trufa gaixto
eta maleziak
Ezagutzen tu orai
eskualdun guziak.
Makilez ditzagula
berri justiziak;
Arrotzez egin-araz
kanpora jauziak.

12/ Eskual herritik kanpo
Eskualduna frango
Bagirare zuekin,
hor bat egiteko.
Dezagun beti elgar
susta eta bero,
Jainko onak adituz,
orai eta gero.

Mañex Artzaina

N.B. — Mañex Etchamendy-ren kaieran hemengo bederatzigarren eta hamargarren koplen artean, hauxe bada.

Horra gure etsaiek
zer duten pentsatu:
Gu behar gituztela
poxi bat zentzatu.
Berentzat naski deusik
etzeie bekatu:
Apez-geien eskolak
dituzte zerratu.

APEZ-GAIERI

1908-ko abendoaren hamekan, *Eskualdunak* ekartzen zituen:

- a) aldizkariaren izenean zombait lerro argigarri;
- b) Mañex Etxamendi-ren letra bat;
- c) hunen zombait bertsu apez-gaieri buruz.

Denak ezartzen ditugu segidan:

«*Eskualdunaren* irakurleek ez dukete ahantzia, Semenario handi eta ttipi guziak ebatsi zituztenean eta huts arazi karraskan oro, gure Jaun apezpikuak fededun bihoz dun guziera eta berezoki aberatsei, ez nahiz pobreak sobera bortxatu, galde bat egin zuela, otoi lagun zezaten apez-gaiantzat lehen-bai-lehen aterbe hatzemaiten; hortako nahi-eta-ez behar ziren gastu izigarriak, nolazpeit egin dire arima onei esker.

Hetarik bat izan zen Ezterenzubitar bat Kalifornian bizi zena, oraino ere han baita, *Mañech Etchamendy*. Ehun libera igorri zazkon Jaun Apezpikuari, koplak eder batzuekin.

Guhaurek badaukagu Eskualdun makila eder bat, Mañexi heltzeko egin-ara-

zia Larresoroko eskolier ohien izenean; ez baitiogu Ameriketarat igorri, ustez be-
ra sor-herrirat laster jitekoa zen. Behar
dena eginen dugu, Mañexi berari doakon
bezala.

Jaun Apezpikuak parada on bat izanik,
igorri dazko gizagaixo Eskualdun artzain
onari bere esker bereziak, orroitzapen
eder batekin.

Haren arrapostu dire hemen atsegin
bizi batekin emaiten ditugun letra on,
ximple, hunkigarria, eta letraren ondotik
berriz oraino Etchamendyk igortzen di-
tuen koplak.

Koplak, ba, menturaz, bainan bere le-
trañoa ez bide zukeen gazeta huntan ager-
tzeko igorria. Solas makurragorik hogoi
ta bortz badabila gazetetan. Hoberik ez.

Guhauren eta gure irakurtzale adixkide
eskualdun zinezkoen izenean milesker eta
goraintzi Mañex Artzainari, elgar ikus
arte agian.

* * *

*Kalifornian (Ivi) egina Azaroaren 4-
ean 1908.*

Gure Jaun Apezpiku
ohoragarria,

Nik ez dut eskolarik edo jakitaterik zuri letra baten behar bezala moldatzenko; bainan ene eginbidea da, ene Aita-Amekin ikasi dutan mintzaian bederen zuri jakinaraztea nola errezebitu ditudan zuk, Gratian Ardans jaun misionestaren medioz, igorri dazkidatzun present ederrak: Arrosario pare bat eta Medaila eder bat, alde batean Pio X, eta bertze aldean Ama birjina duena. Aita Gratianek, Frantziatik hemen arribatu bezain laster izkiribatu zautan, zure present horien eni heltzeko ene adreza nahi zuela seguratu lehen bai lehen despegitzeko; bainan nola artzaingoan bainago beti, nihauren postara joaiteko okasionerik ez nuelakotz luzatu dut gauza haien ekarraraztea. Orai errezebitu ditut gauza balios eta benedikatu horiek; emaiten baitautate konsolazione bat hemengo lanjerretan. Jaun Apezpiku on eta guziz ohoragarria, entseiatuko niz zure orroitzapen haien ene bizi guzian kontserbatzerat; eta zuen ototzeri juntatuz eginen dut nik ere zenbait *Agur Maria...*, egungo egunean honbertze atakatua den Eliza Sainduarentzat! Jaun Apezpiku maitea, ausartzia dut pertsu haien zuri begizatzerat igortzeko, Apezgagieri eskurat emaiteko on direnetz. Pentsatzen dut norbaitek izanen duela boron-

datea letra hunen Frantseserat zuri itzul-
tzeko.

Huntan finitzen dut ene letra ximplea:
Pertsu ximple haien zuri igortzeko har-
tzen dutan ausartziaz barkamendu gal-
degiten dautzutararik, eta zure present
ezin gehiago estimagarri haiuentzat eske-
rrik hoberenak bihurtzen dauzkitzuta-
rik ene bihotz guziaz.

Zure zerbitzari umila.

Mañex Etchamendy

* * *

Airea: *Oi Betleem.* (1)



(1) Lertxundi: *Kantikak*, Bayonne, 1948, 286.

1/ Haur gaztea,
Norat zoaza bide hortaz
Haur gaztea?
Nahi duzu apeztea;
Izpirituaz argiturik,
Amodioaz su-harturik,
Haur gaztea.

2/ Dohatsua,
Hel bazinte zure xedera
Dohatsua!
Azkar bedi zure sua!
Gal-bidetik zare atera
Semenario batetara...
Dohatsua!

3/ Beti lana
Behar duzu hemen maitatu,
Beti lana;
Sari ona dakarrena.
Gorputzeko indarrez baino
Izpirituaz gehiago
Beti lana.

4/ Mundu petik
Lagun batzu zuri oihuka
Mundu petik:
Haugi gure ganat hortik!»
Orduan hetaz orroitzean
Gudu bat hasten bihotzean
Mundu petik.

5/ Munduari
Beha bat emaiten diozu
Munduari;
Haren ondorioari;
Bainan ez diozu kausitzen
Auhena, min eta pena baizen
Munduari.


6/ Ordutikan
Mundua arbuiatzen duzu
Ordutikan;
Sendimendu bizietan;
Nahi duzu zure bihotzez
Jabetu zeruko dohainez
Ordutikan.

7/ Oi! ordena,
Karguetan den handiena
Oi! ordena:
Jesus-kristoren Ordaina:
Memento baten pairamena,
Gero betiko zoriona:
Oi! ordena!

Mañech Artzaina

URRUNDIK URTE ON

Airea: *Zeruko izarren bidea.* (1)



- 1/ Urte zaharra itzali da
elur-pean,
Berria sortu eta jauntzi
soin berean:
Nun da bada diferentzia
Hen artean?

(1) Aireia Sallaberry, 1870, 228 orri-akde.

- 2/ Urte zaharrak egina du
bere turra:
Ongaitzekin jautsia da
hil-herrira.
Haren esperantza guziak
galdu dira.
- 3/ Urte berriak on eta gaitz
hartzekoak;
Ederrak asma detzazkegu
gerokoak...
Horrat lerrakor bai bihotzak
bai gogoak.
- 4/ Halere berdin falta daite
zoriona
Eta etor uste-gabeko
dolumina.
Beharrik etzauku nausitzen
etsipena.
- 5/ Funtserat-eta agur diot
urteari,
Gomendatzen diotalarik
Jainkoari;
Harek du bakarrik eginen
xoragarri.

6/ Ene maiteak, aurtengotzat
zuendako
Erranen ditut bizpahiru
hamarreko.
Egizue bertze hainbertze
enetako.

7/ Arno onetik baso bana
dugun edan
Elgarren osagarriari
lorietan,
Esperantza lora dakigun
bihotzetan.

8/ Agian urte hunek gaitu
hurbilduko,
Trinka ahal dezagun orok
eguerriko
Eta kantuz elgar besarka
urtatseko.

Mañech Etchamendy (1908)

MENDI-GAINEKO MARIAREN
KONFESIOA

Airea: *Ikusten duzu goizean.* (1)

- 1/ Eskual-herri ederrean,
Ait'amen onen artean,
Haur bakarra naiz etxean.
Girixtinoki naute altxatu
Artarik handiengan,
Atxikiz bere menean
Beti erakuspenean
Zuhurtziaren gainean.

(1) Aire hau, 30 orri-aldean.

2/ Haur xumea nintzelarik,
Ez omen nuen parerik,
Maitagarriago zenik.
Bainan urguilu ondikozkoan
Nere gogoak emanik,
Ez ginuen zorionik,
Ez bainuen maite lanik
Ez burrasoen erranik.

3/ Jarri nintzan hanpatua,
Soinekoz aberastua,
Nere buruaz hartua.
Altxa-lilia udan bezala
Nere nahiz altxatua,
Maite nuen deskantsua,
Bestak eta merkatua;
Hori zen ene gostua.

4/ Lore bat nintzan bixtako,
Eder jaurei batetako,
Aberatsen herrunkako,
Ipurdi faltsu zaia bilduan
Handitzen hasi orduko:
Ezin para belauniko,
Gutiago kokoriko;
Gisa nindagon mendiko!

5/ Aberats bat zen ohartu,
Niri begira gelditu
Eta laguner mintzatu:
«Mendi-gaineko Maria zauku
Gu bezalaxe beztitu;
Nork ezaguteren gaitu,
Aberats garela sortu.
Zer behar dugu pentsatu?»

6/ Bestetan nintzen ernia,
Lan egunetan nagia,
Ohatzean egolia.
Amattok oihu egina gatik
«Hots, jeiki hadi, Maria!»
Lo nindagon alegia,
Ezin argituz begia;
Zer etxe-altxagarria!

7/ Jeiki ondoan deskantsuz,
Beti mirail bati buruz
Biloak ezin apainduz.
Gero urratsa nuen ikasten
Gibela firurikatuz,
Gerria mehe tinkatuz,
Hatsik ere ezin hartuz,
Beti nindoan mendratuz.

8/ Zentzuz erromes bainintzen,
Guti nuen ezagutzen
Ongia nondik heldu zen.
Uste bainuen lumaren gatik
Zutela xoria hartzen,
Hortan nintzen enganatzen,
Nehork ez zautan behatzen
Ni idurikoek baizen.

9/ Noizbait ama abiatu
Behar nintzala sanjatu;
Nik ongia gaizki hartu.
Bainan hor aita bixtan emanik,
—Galtzak soinean baititu—
Bi hitz zautan adrezatu;
Bortxaz nuen obeditu,
Gero ez zaut urrikitu.

10/ Ordutik naiz kanbiatu,
Bizitze berri bat hartu,
Maitagarria bilatu.
Lohirat zoan lili ederra
Aldaxketan da gelditu:
Niri hala zaut gertatu.
Aitamek naute salbatu
Eskerrak deiztet bihurtu.

11/ Mendietan zelaietik,
Garazin Amikuzetik,
Zuberoan Lapurditik,
Urguiluaren arbola zauku
Hedatu denen gainetik.
Aski handi da engoitik.
Pika dezagun errotik
Betikotz Eskual-herritik.

N.B. — Bertsu hoik Mañex Etchamendy-k berak igorri zauzkun, bere kantuetarik zirela. *Eskualduna* astekari-xerrenda batean ziren, firmarik gabe eta titulua kendurik. Bertzalde P. Dibarrart-en paperetan aurkitu dugu kantu hori titulu hunekin: "Mendigaineko Mariaren kofesioa Baigorriko xantreari..." Ez gira batere segur Mañex-ek egina den kantu hori. Baditake ederrez goititu duen. Segurtamenik ez izanez, bilduma huntan ezarri dugu.

EMAZTER BESTA ON!

Airea: *Mendian zoinen eder* (1)



- 1/ Besta on, aboztuko
Birjina Maria!
Zure geriza-pean,
gu denen loria!
Bainan besta emaztek
daukate berea,
Zu baitan ezagutuz
bere ohorea.

(1) Airea: Sallaberry, 1870, 148 orri-alde.

2/ Emaztea kreatuz
Jainkoak egin du
Munduarentzat obra
eder eta saindu.
Lehen Ebak hastean
bagintuen galdu,
Bigarrenak grazia
nasaiki ordaindu.

3/ Kanta dezagun beraz
emazten fagore!
Guziak Mariaren
ahizpak dirare;
Gure familietan
bizi-begirale
Eta, nahi badute,
orotan andere.

4/ Ama nork ez du maite,
nehor ez bezala,
Haren ganik izanez
hastetik odola?
Esne, musu, arimaz
iturri leiala,
Ezin ahantzia da
Amaren hegala!

5/ Esposarentzat aldiz
andrea sokorri,
Oren guzietako
lagun miresgarri!
Harek eztitzen ditu
penak senarrari,
Amodioz daudela
bat-miñot elgarri.

6/ Baratze-taulenetan
badea lorarik
Alaba on bat baino
alegeragorik?
Bihotz ala arpegiz
hain goxo delarik,
Etxea ezartzen du
kantorez beterik.

7/ Besta on, xahar-gazte,
emazte guzier!
Zuek gabe mundua
gal litake laster.
Zuen begi bizitan,
garbi eta eder,
Jainkoaren Argia
dadiela ager!

Mañex Artzaina (1911)

TOBERA-MUNSTRA BATZUEZ

Airea: *Nun utzi dun astoa, Mari
Kalamardin.* (1)

- 1/ Bi mutiko jin zauzkit
bertsu berri galdez,
Tobera-munstra batzu
muntatu beharrez:
Sujeta zen auzoko
bi senar-emaztez...
Bainan, gizonez gizon,
erran deiet ezetz.

- 2/ Galarrotsak eskuaraz
egiten direla!
Usaiak begiratu
behar ditugula!
Hori, ene gostuko,
arrazoin ahula:
Gaitza gaitz da eskuaraz
erdaraz bezala.

(1) Aire hau, ez-ezaguna dugu.

3/ Ohidurak zaintzen tut
onak direlarik.
Ez dut nahi zikindu
nehoren famarik.
Norbaitek egin badu
behar etzuenik,
Gauzaren xuritzeko
ez dea jujerik?

4/ «Gaitz guziak ez dire
legepean sartzen;
Hortako juiek nehoiz
ez dute punitzen!»
Baditake, bainan nik,
zer nahi dadien,
Jainkoaren gain ditut,
juia ditzan, uzten...

5/ Alegiazko auzi
batzu egitea,
Nehor kolpatu gabe
ongi jostatzea,
Alegre eta garbi
atxikiz elea,
Hori zaut duda gabe
kostuma maitea.

6/ Gazteak, munta beraz
ahalik maizena
Tobera hoietarik,
eta jin ni gana:
Ez naiz irrien etsai
ez eta xauxuna,
Nahiz egina dauten
seriosaren fama.

Mañech Artzaina (1912)

N.B.—Kopla batean azken lerroa zen: “Nahiz egin dautaten seriosaren fama”. Ez dakigu zoin hauta. Ontsalarik beharko zen “egina dautaten”, baina luzeko zitaken!

MAÑEX TTIPIAZ

Airea: *Partitu nintzen herritik.* (1)

- 1/ Partitu zauku etxetik,
Gu denak trixte utzirik,
Hamabi urte zituela
doi-doia konpliturik.
Nola ez egin nigarrik?

- 2/ Iguzki kolpe samina,
Semea kendu daukuna!
Zonbait egun zauku bakarrik
eri handi egona,
Buruko gaitz batek jana.

- 3/ Gaixo haurra dena amets,
Angles, latin eta frantses!
Eskuaraz halere ari zen
Jainkoari otoitzez:
Nahi zela egin apez.

(1) Aire hau 73 orri-aldean.

- 4/ Galde hori alferretan
Egun oroz hamarretan!
Zer zinen ba, Jainko maitea,
aingeru-beharretan?
Nor sar zure konduetan?
- 5/ Jauna, zuk zinaukun eman,
Zuhaurek orai ereman!
Apalki zure nahiari
gaude errespetuan.
Bil Mañex zure zeruan!
- 6/ Haur gaixoa, gain hortarik,
Hago gutaz orroiturik!
Sor-etxea zain diezaguk
Gaizki guzietarik!
Hiri maiteki gaudezkik!

M. E. (1913)

Mañex ttipiak «seigarrena» Belok-en iragan zuen (1912-1913), han jarria baitzen Semenariot ttipia. Udako bakantzetan hil zen, iguzki-kolpe batek jorik.

EZTERENZUBI

Airea: *Ez eni erran gezurrik.* (1)

1/ Jin zauzkit erreportxuka
herritar bat edo bi,
Zertako ez dudan aipu
pertsuz Ezterenzubi:
Ez balioz ditakenetz
erran dezadan garbi.

2/ Ezterenzubi ez daukat
herrietan mendrena;
Gehiago ere diot:
hura dut nik maitena.
Damurik, hartaz artzeko,
ez bainaiz jakintsuna.

3/ Zaharren ganik entzuna
aipa dezaket xoilik.
Uros jakin-beharrenak,
denbora joanen gatik,
Ez bazauzkit gehienak
ihesi joan burutik!

(1) Aire hau, ez-ezaguna dugu.

- 4/ Lehen, Ezteren alde hau
bazka-leku omen zen.
Artzain eta aberezain,
bertze nihor ez baitzen:
Oro garaztar karanak,
hunat zirenak biltzen...
- 5/ Etxolak etxetu zuzten,
larreak lur-berritu,
Bazterrak, bidez onturik,
pollikiño herritu...
Hemezortzi-garreneko
mendean zen gertatu.
- 6/ Ezteren-gibelekoak,
girixtino kartsuak!
Kapera altxatu zuten,
beira zitzan Jinkoak.
Bainan hartan ertorik ez,
xoilki bikarioak...
- 7/ Eiheralarreko ginen
parropiaz bederen.
Herriz, nundik jin baiginen
hango herritar ginen.
Luis-Felipek oro betan
berex eman gintuen.

8/ Legez egina izan da
herri... Ezterenzubi;
Ondoko urtean aldiz
azkenean parropi:
Hemezortzi ehun eta
hogoi-ta-hamazazpi!

9/ Lehen ertorak izena:
Hiriarte apeza.
Hogoi eta zonbait urte
geroztik ziren pasa:
Burbote erretor jaunak
ein baitzuen eliza.

10/ Eliza horren inguru,
jendea emendatu;
Familiak egoitzetan
goxoki antolatu,
Elgarrekila bihotz bat
bakean bilakatu!

11/ Garaziko herrietan
gurea da gaztena,
Eskual-herriko Arbolan
adarrik berriena,
Fruitu hainitz emaiteko
esperantza duena!

12/ Atxik dezogun guziek
gure Sor-herriari!
Berma beti ahal oroz
Haren hazkartzeari...
Haitza barna dagokio
Hazi duen Lurrari!

M. Etxamendy (1913)

J.B. Daranatz-en arabera (*L'Eglise de Bayonne* 1924; p. 112-114) Ezterenzubi Eihelarretik Louis Philippe-k berexi zuen «succursale» gisa 1836-eko abendoaren 13-an. Lege batek herritzat («commune») ezagutu zuen 1842-ko ekainaren 11-n. Izpura, Donibane-Garazitik 1844-eko martxoaren 31-n berexia izan zen; beraz, Ezterenzubi baino herri berriagoa da, Mañex-ek hala uste ez zuelarik.

Ezterenzubik, parropia bilakatu aintzinean, izan zituen lau bikario; Legar (1820-1823), Espinal (1823-1826), Dolhats (1826-1832), Hiriart (1832-1837). Azken au izan zen herriko lehen erretora (1837-1842). Bourbotte oraiko elizaren eraikitzailea. Donibane-Garaziko seme zen. Ezterenzubin erretor egona 18 urte (1865-1883). Harek zuen M.E. bataiatu.

BEILARIEN IXTORIOA

Airea: *Zazpi sos banituen osabak emanik.* (1)

- 1/ Behin hiru beilari
abiatu ziren
Zion ikusi nahiz
eta Jerusalem:
Xinaurria, ttirritta,
xipa hirugarren.

- 2/ Lehen aratsaldean,
ur-eskasez naski,
Xipak akidurari
ezin ihardoki;
Hil zen, eta lagunak
beilari jarraiki.

- 3/ Jin zenean negua
hotz eta gordinik,
Urrun ziren oraino
Jerusalenetik;
Hor ibai bat izanki
arrunt hormaturik.

(1) Aire hau, ez-ezaguna dugu.

- 4/ Ttirritta jauzi batez
gaindi da pasatzen;
Xinaurria hormarat
aldiz menturatzen;
Gaixoak ez zakien
irriskua zer zen.
- 5/ Horra zangoak horman
hertxiki hartuak:
«Nausi dena urrikal!
—dio xinaurriak—
Horma, nausi baitzazkit,
utz ene zangoak!»
- 6/ Hormak ihardesten du:
«Gaixo xinaurria,
Niri aise nausi zait
iguzki bizia;
Urtzen eta suntsitzen
ahal nau guzia!»
- 7/ Entzunik iguzkiak
du erreferatzen:
«Niri lano lodia
aise zait nausitzen;
Nahi duen bezala
ari nau itzaltzen!»

- 8/ Lanoak bazterretik:
«Nausi dut haizea.
Harek nau barreatzen,
tzarra ez bertzea;
Segur merezi luke
preso ezartzea!»
- 9/ Haizeak arrapostu:
«Zertan naiz ni nausi?
Gelditzale baditut
milaka harresi;
Murruak igortzen nau
gibelat ihesi!»
- 10/ Murruak ere badu
zerbait erraiteko:
«Nik nausi garratoina;
banauka meneko,
Barnetik ausikika
hutsik botatzeko!»
- 11/ Garratoina hasten da,
dena arrangura:
«Nik ere badut etsai,
oi murru minbera!
Gatuak ñaka batez
biltzen nau tripara...»

12/ Denak hola baitziren
kasailan mintzatzten,
Tirritak xinaurria
soinerat du biltzen,
Eta hormaren petik
osorik jalgitzen...

13/ Beilariek bidean
zioten elgarri:
«Zonbat indar munduan
elgarren galgarri;
adixkidantza segur
nausi da orori!»

M. Etchamendy

Ez dakigu noizkoak ziren bertsu hoik.

BI GERLA HANDIREN ONDOAN
(1870-71 1914-18)

Airea: *Andre Madalen*. (1)

The image shows a musical score for a piece titled "BI GERLA HANDIREN ONDOAN" (1870-71 1914-18). The score is written in G major (one sharp) and 3/4 time. It consists of five staves of music. The first staff is the vocal line, starting with a treble clef and a key signature of one sharp. The second and third staves are accompaniment for a piano, with the second staff using a treble clef and the third using a bass clef. The fourth staff is a continuation of the piano accompaniment, and the fifth staff is a final chord. The music features a mix of eighth and sixteenth notes, with some triplets and slurs. The piece ends with a double bar line and repeat dots.

(1) Florentin Vogel: Ene Hautia.

- 1/ Nola guk erran egun, Frantzia,
Gu hire haurren alegrantzia!
Ama ginian hitan eria
Etsaiek hiltzat utzia:
Hek xurgaturik odol guzia
Apal hindagon, ez eroria:
Goratu baihaiz egun, herria,
Biba, bai, biba Frantzia.
- 2/ Urteak ditu, gau ilun batez
Lo zagolarik ber'ohantzean,
Arrano bati lotu zirela
Berrehun bele batean:
Bentzutu zuten, ezin aurtiki
Hainbertze etsai beltzen artean;
Hegal bat ere kendurik utzi.
Bardin zabilan airean.
- 3/ Eta ikusiz arrano hura
Etzuela hil heien kolpeak,
Bainan goratuz zohala beti
Ikaran zauden beleak.
Erranez: «Segur arrano horrek
Izanen ditik egun hobeak;
Etorriko duk bertzen orena,
Ezen baditik umeak!»

4/ Frantses herria laster halere
Goratu zauku lehen bezala:
Umek amari ekarri dute
Belek ebatsi hegala;
Lau urte hotan Frantses guziak
Bermatzen ginen egin-ahala;
Jainkoa lagun, hor ezartzeko
Gure etsai tzar hori hila!

5/ Nor ote dira gure artean
Merezimenduz aberatsenak?
Hek dira gerlan soldado gazte
Lorioski hil direnak.
Bizi gireno iraunen du ba
Maite horien orroitzapenak,
Zeruan berriz ikusi arte
Distirant heien arimak.

6/ Ohore berdin gure herritar
Soldado bizi diren orori;
Bipil, bihurri agertuz dute
Etsaia iges igorri.
Hainitzek dute beren gorputza
Zauri odolez dena estali;
Nahiz herria orai den bezain
Gora-lorios ezarri.

7/ Jaun zerukoa kartsuki deituz
Irabazi du Fox marexelak,
Horrekin Petain eta Castelnau
Zer gizon fedez azkarrak!
Lagundu ditu indarren biltzen
Clemenceau gure tigre zaharrak,
Esku onetan ditu bai segur
Frantziak bere banderak!

8/ Uros, Amaren altzoan daude
Frantziaren haur maite guziak
Denak besarka amodioan
Elgarri tinki lotiak;
Menderen mende iraun dezala
Gure batasun miragarriak.
Jainkoarentzat, Herriarentzat,
Higatuz gure biziak.

1919-ko urtarrilean. Elizanbururen *Biba Franzia*-ren arabera moldatuak dire bertsu hoik, heien segida bezala, laugarren koplantik hara.

UHOLDETIK LANDA

Airea: *Andereño bat ikusi nuen.* (1)



(1) Airea: Sallaberry, 1870, 324 orri-alde.

N.B. — Bertsu hoik Mañex-ek ez bide zituen ager-arazi. Ez ditugu *Eskualduna* astekarian aurkitu, baina eskutitz batean. Berriak entzun bezala eman zituzken, inkesta izpirik gabe.

Huna zer jakin dugun Arnegitik: "1920-eko maiatz-erditan uri-uhar haundiak egin zituen mendian eta erreketako urak goititu ziren. Ez zen izan haa-

tik uholde egiazkorik. Eguerdi aitzinean haurrak jalgi ziren eskolatik usaian bezala, maiatzaren 20-ean. Politenean eguerdi irian entzun zituzten oihu batzu: "Haur bat urean erori da!" Jendea ur-handirat lasterka ari zen Bentetara buruz. Lorentzo Politeneko nausia ere bertekin. Ez zakiten haurra zoin zen. Lehen, Lorentzok, holako kasu batean, Frantxixkaeneko haur bat salbatu zuen, bera itozteko irriskuan. Segur 1920-eko maiatzaren 20-ean ere jauzi eginen zuen urerat haurra nuntsu zen jakin balu, bereziki bere haurra. Bainan ez zuen okasionerik ukan. Oren-erdi baten buruan segurtamena ukan zuten Mixel Polit (6 urte) erori zela Brensako Errekan, Xaluxinako zubitik. Zubi hori askok deitzen zuten Seroraineko zubia, ondoan zuen etxearen gatik. Mixel ttipiaren gorputza handik zortzi egunen buruan Soubelet guardak atxeman zuen arrantzan ari zelarik Ganelain xiloan, Politenea eta Benardoenea deitu bi etxen arteko bihurtunean. 1920-eko ur-goititze horren karietara ez zen eskerik izan.

Geroxeago, 1927-ko uztailaren 25-ean, bai, izigarriko uholde bat izan zen, desmasia zer-nahirekin, Orduko aldizkariak eta *Eskualdunak* ere nasaiki aipatu zuten.

Xehetasun horiek eman dauzku Heloise Polit, Mixel ttipiaren arrebak (5-V-71).

- 1/ Uri-erauntsi izigarriak
erori dire mendian,
Urak burrustan jautsi baitire
arrabots gaitzen erdian,
Arbolak eta arrokkak ere
errotik joanez pasaian;
Ibai guziak hantu zitzauzkun
denak fundituz zelaietan.


- 2/ Etxe batzuek sukalderaino
ur zikinaren bisita!
Errekak oro gaindi eginak,
zoin itsusi heien bista!
Ardi, urde hil, muble, arropa
nahas-mahas igerika!
Amak zeinatuz jabal zadien
Jainko jaunari otoizka...
- 3/ Zer desmasiak, zer miseriak
etxalde askorendako!
Alorrak zikin, pentzeak berdin
uztak ez deusetarako!
Murru harriak zimenduetan
kordoka daude hanixko:
Ez ahal dire halako batez
zorigaitzez lehertuko!
- 4/ Arnegi hortan muttiko baten
berri trixtea da jakin!
Mixel heldu zen eskol-etxetik
gogo-bihotzak zoin arin:
Serorateiko zubia urak
ereman du haurrarekin...
Bazterretikan denak oihuka
eta deusik ezin egin!

- 5/ Polit-enetik aitak, jin-eta,
jauzi ur basa hoitara
Bainan alferrik zoko miaka
bilatzen du bere haurra.
Zurrumilotan gutik egin du
ez baita ito ber-bera:
Auzo batzuek doi-doietarik
bizirik dute atera!
- 6/ Mixelen gorputz miko gaixoa
zonbait egunen buruan
Biziki urrun atxeman dute
ibai-birako batean...
Pena handiak gertatzen dire
burrasoentzat munduan!
Urrikaldurik parte dugun har
hekien bihotz-minean.
- 7/ Uholde horrek malurtuetan
behardunak baditazke.
Heien onetan, entzun dugunez,
eginen da zenbait eske.
Gerla onduan nahiz bizia
denentzat den aski neke,
Nola kasuan sorraioturik
zikoitzak ager gintazke?

M. Artzaina

GERLAREN ONDORIOZ

Airea: *Adios, izar ederra.* (1)



- 1/ Gerlaren ondorioz
altxatu beharra
Larrerat erori da
eskualdun xamarra.
Dela Xubero,
dela Garazi,
Amikuze bera,
Lapurtar bilakatu,
en'ustez sobera.

(1) Airea: Sallaberry, 1870, 196 orri-alde.

2/ Badut, han eta hemen,
plazan ikusirik:
Pilota ala jauzi,
joko orotarik:
Atorra xuri,
gerriko gorri,
gainetik xamarra,
Lerden eta bipilik
beti garaztarra.

3/ Bizarra kenduz geroz
Eskualduna gazte:
Orai bertzerik dago
sudur petik haste.
Frantsesez kanta,
kaskoinez dantza,
pilotan anglesez...
Otxalde, zer diozu
holako urratsez?

4/ Boz ozenik entzun dut,
lehen, mendietan,
Ofizio ederrik
gure elizetan:
Elgar adituz,
xaramelatuz,
han zen han loria!
Pestaren lehen buru
beti gazteria...


5/ Laborari maiteak,
ez barka lurrari!
Lana ohore dela
erakuts haurreri.
Utz Amerika,
herria maita,
holako urtetan
Bizitzia neke da
guziz hirietan.

6/ Ontasun egiteko
huna sekretua:
Igande-aratsetan
goiz huts ostatua;
Bizi xuhurki,
bezi oneski,
ez ahantz geroa,
Fede azkar batekin
otoituz Jainkoa.

M.E. 1920-eko abendoan

KAZETA ESKUALDUNA-REN FAGORE

Airea: *Oilarra kukuruka*. (1)



- 1/ Oi zu Baxenabarre,
eta zu Lapurdi,
Gisa da dezazuen,
hots, egin biderdi.
Eskualdun hau zinuten
utzia aspaldi.
Noizbait bihotzeraino
zin-zinez hel bedi.

(1) Aireya: Kantuz, 26.

- 2/ Zonbat gizon argitu
gorderik daudenak,
Ez ditu lilluratzten
hanbat aipamenak.
Irakurtzen bagintu
heiek dazkitenak,
Harrapaka gintio
irets zalu denak.
- 3/ Abiatzen balire
behin urrats hortan,
Aise lerra litazke;
nola geldi bultan?
Hastapen bat behar da
gauza guzietan,
Ondotik nahi bada
zerbait onik izan.
- 4/ Zonbat ongi lioten
egin bazterretan,
Iñorantak argituz
ez dakitenetan!
Entseatzen bagare
lagunen onetan,
Sari ederra dugu
guretzat gain hartan.

5/ Emozu gizonari
egia hazkurri.
Horren eskasean da
gos'eta egarri.
Jainko Jaunak nahi du
lot gaiten lanari,
Bere ordain baikitu
hortakotz ezarri.

6/ Jende xehea guziz
griñaturik dago,
Zer izanen ote den
arabera gero!
Zerbait laguntza nahiz,
ez da asko aho,
Beldurkondeak badu
bazterretan haro!

7/ Lehen etzenik orai
baitugu ikusten,
Zerbait gehiagorik
daukute galdatzen.
Beha zazu etsaia
zer hats gaixtoan den:
Azkarki oldarturik
gaitu mehatxatzen.


- 8/ Eraiten duzunean
hazi baliosa,
Uzta bat heldu zautzu
hanitz aberatsa.
Etsaia jinik ere,
ez zaitela lotsa.
Jainkoa alde duzu:
berma zaite ontsa!
- 9/ Satan beltza marrumaz
zokoka dabila,
Oihan eta errekek
ikaran daudela.
Ezin bertzez galtzen du
arima fidela,
Zuk baitiozu kendu
hortako ahala.

Mañex Etchamendy (1920)

1914-1918 urtetako gerlak kalte handia egin zion *Eskualduna* astekariari, papera xuhurtu zitzaiolakotz. Berriz bultzatu beharrez, Adema jaun buruzagia lankide eta irakurleketa zabilan. *Mañex Artzaina*-k dei bat egin zuen bertsu hautaz. Zazpigarren koplan aipatzen duen etsaia da *Bloc des gauches* apailatzen ari zen ezkertiarren batasuna. Handik lau urteren buruko, Elizarren etsai horiek nausitu behar zuten Frantzia. *Eskualduna* ez zen bere ezeriatik altxatu 1925-eko urtarrilan baizik, Saint-Pierre buruzagi jartzearekin.

HALAKO ANDERER ETA HEIEN
IDURIKOER PERTSU BERRITAN
BI HITZ

Airea: *Agur adixkidea, Jinkoak*
egun on. (1)



(1) Airea: Larrazketa-k A. Zatarain jaunari igorri
paperetatik hartua.

- 1/ Aita batek ziozkan
behin seme bati
Artaldetikan eman
beretzat bi ardi.
Zion: «Hoi en intresa
kontserba baladi,
Umea haziz daitek
artaldea handi;
Denen begiratzera
beraz berma hadi».
- 2/ Semeak estimatuz
aitaren agintza,
Gogoan hartu zuen
aitak erran hitza.
Bere bi tresoretan
badu esperantza:
Kar batek hartu zuen,
bai, haren bihotza,
Zoinek emanen zion
lehenik bildotsa.
- 3/ Arratsalde batez da
semea ohartzen:
Bat umearekidan
etxerat etortzen!
Bertze ardia aldiz
nihun ez agertzen;
Ez zezakeien asma
zer zaion gertatzen...
Griñan dagolarik da
iluna hurbiltzen.

- 4/ Bertze ardia laster
ikusten du hantxe,
Oihanerat dohala
etxerat jin orde:
Bildots sortu berria
nahi zuen gorde;
Umeño haren karga
baitzizaion dorpe,
Amak eman ziozkan
hiltzeko lau kolpe.
- 5/ Gau ilunak gogo
arintzen ziola,
Erran zuen: «Ibili-
agatik nik hola,
Noren eta zertako
duket nik axola?
Fama emailerik ez!
Libroki nabila!
Oi zer bizi goxoa!
Ni naiz, ni, abila!»
- 6/ Ardi atrebituak
atsegin heietan
Etzuen laster iraun,
sartu zen penetan:
Gaitz bat sartu zitzaion
betikotz zainetan.
Egun bat ontsa bazen,
bortz egun herrestan:
Halere bizi nahi
ideia beretan!

- 7/ Seme harek geroztik
Ardi batetarik,
Bai eta ardi haren
umen-umetarik,
Ibiltzen du mendian
artalde ederrik...
Bertze ardiak ez du
agertzen umerik:
Denbora alferretan
dohako trixterik.
- 8/ Amaren utsez hola
galduz ume hura
Jabeak ontasunik
galtzen du sobera:
Hortakotz du bientzat
estimua bedera;
Nola izan dezake
amodio bera?
Bat maite-ta bertzeaz
higuintza, kolera...
- 9/ Erresuma guziek
zioten elgarri:
«Frantses populua da
orai dolugarri:
Ume sobra galtzeak
du apal ezarri!»
Zentzu guti duenak
eginen du irri.
Aipatzea bera da
nigar egingarri!

10/ Nun zer galtzeak diren
populuendako,
Jinko Jaunak bakarrik
ikusten tu oro.
Ardura balinbada
zerbait jasaiteko,
Nondik heldu zaizkigun
dugu ikusteko,
Maiz aski dire obrak
agertzen lekuko.

11/ Nork ere hartzen baitu
plazerren bidea
Lur huntan berean du
doblezka kaltea.
Garbi izaiteko har
dezagun xedea.
Urosa nahi denak,
atxikiz Fedea
Segi dezala beti
Jesusen legea.

Mañex Etchamendy (1921)

Ikus Gure Herria.

Errepikan deitu kantu bilduman, laugarren koplari gaizki irakurturik ezarri zuten: «Ama, errailerik ez», behar zelarik: «Fama emailerik ez». Zortzigarrenean, liburu berean irakur ditake:

Amaren utsez hola galdu ume hura
Jabeak ontasunak galtzen-tu sobera.

Zortzigarren koplaren ondotik diren pon-
duak Etxamendik berak emanak ziren.

* * *

Etchamendi-ren kaier batean huna zer
kanbiamenduak aurkitzen ditugun:

8/ Amaren hutsez hola galduz ume hura
Jabeak ez dezake mozkinik atera:
Hortako du bientzat estimu bedera:
Bat maite-ta besteaz higuintza, kolera.
Nolaz izan dezake amodio bera?

9/ Erresuma guziek diote elgarri:
«Frantses populua da orai hola jarri,
Ume anitz galtzeak du apal-arazi.»
Zentzu guti duenak eginen du irri.
Aipatzea bera da nigar egingarri.

10/ Zer desmasiak diren jendakiendako
Jainko onak bakarrik ikusten tu oro.
Frantziaren omena berriz goratzeko
Zer eginbide dugun dugu ikusteko,
Jinkoaren legea xuxen segitzeko.

Kaierean bertsu hauien titulua da *Ale-*

gia, eta airea: *Erromako aldetik zer da argi hori.* (2)



Er - romaco al - detic cer da argi ho - ri ?



E - gi - ac daucu han - dic argi - tcen o - ro - ri :



Beha dezo - gun be - ha bethi Er - ro - ma - ri ;



Er - ro - ma - co E - li - za A - ma Saindu - a - ri ;



Beha de - zo - gun be - ha u - me - ec a - ma - ri ;



Beha dezo - gun be - ha u - me - ec a - ma - ri.

(2) Adema: "Eskualdun Pelegrinaren Bidaltzalea, Bayonan, 1877", 168 ta 173 orri-aldean.

SEGERETURIK EZ SALA

Airea: *Nun utzi dun astoa, Mari
Kalamardin.* (1)

1/ Behaut segeretuaz
egin parabola:
Sujeta eman dautet
argi dezadala.
Gaia ezta errexa,
ni guti abila.
Bainan esplika gaiten
kantuz berehala.

2/ Nahiz lamiez dutan
aditu ederrik,
Hetan eztut alafe
sineste mikorik.
Batto hemen halere
aipatuko dut nik,
Ametsez izan dadin
gaia arindurik.

(1) Aire hau, ez-ezaguna dugu.

3/ Neska bat Artxilondon
ardi-zain dabila
Bi arroken artetik
behatzen duela:
Lamia ikusten du
bilo luzekila
Orraze urre batez
orraztatzen dela.

4/ Begi argi distira
ukanez artzaintsak,
Lamia, oñarturik,
harritzen du lotsak:
Orrazea erori,
luzatuz urratsak
Ihes doa, zintzurra
tinkaturik hatsak.

5/ Neskak fite biltzen du
orraze urrea.
Miraila iduri du,
hain legun ez dea?
Hartan ikusten baitu
oi zer anderea,
Ezin sinets buru hoi
duela berea.

- 6/ «Hauxe da gauza pollit,
joietan lehena!
Zorteak eskutarat
oixtion emana!
Ez nuke nahi saldu
hain mirail karana,
Nun ez lakidan ofri
hartan truk Fortuna.»
- 7/ Gaua pasatu nahiz
haren konpainian,
Artzaintsak ezarri du
buhurdi-azpian.
«Oi orraze saindua,
zer duzu barnian,
Amets goxo ederrez
ontzen nuzunean!»
- 8/ Goizean goiz lamia
ateari joka:
«Nor da hor?» dio neskak
ohetik oihuka.
—«Andrea, Jaungoikoak
zaitzan benedika,
orrazea tratuan
dezagula truka!

9/ Itzul niri, eta nik
atzoko harpean,
Orrazea kausitu
zinuen gunean,
Urre iturburu bat
emanen dut alan,
Nahi duzuna zure,
nahi duzunean...

10/ Bainan kondizione bat
dautazu beteko.
Otoi segeretua
beira zuretako.
Nehori bazineza
sala, hanbat gaixto!
Iturria gal laite
kolpez sekulako!»

11/ Neskak itzuli zuen
orraze urrea.
Ordainez iturriak
emaiten berea,
Begi gorriz neskari
kargatuz zarea.
Hunek etzion aipu
neheri arpea.

12/ Artzaintsak laguneri
diruak partituz,
Adixkideak zaizkon
heldu emendatuz,
Bainan, hartuak hartu,
gainera galdatuz
Nola biltzen zituen
ala... arrobatuz!

13/ Neskak segeretua,
bakearen gatik,
Amari erran zion
doian ahapetik.
Ondikoz, iturria
ordutik beretik
Gelditu zen betikotz
urre emaitetik.

14/ Lamiaren kondaira
hortan dut finitu;
Bere erakaspentak
hark ere baditu.
Munduan bada segur
hainitz segeretu,
Gehienek baitute
hartze errespetu.

15/ Segeretu handi hoik
urrezkoak dira,
Bakotxa berma bedi
heien beiratzera.
Norbaiten saltzea da
heien salatzea.
Eta bere burua
desohoratzea.

16/ Ez da harritu behar,
errana baitute
Elea zilar dela,
ixiltzea urre.
Ai orok mihi hori
bridatzen balute,
Ez laiteke hainbertze
pena ez hasarre!

Mañech Artzaina

Ez dakigu noizkoak ditazken.

PETIRISANTS EDO GOSETEA

- 1/ Petirisantsek zion
gizon behar bati
Abendoa hastean
letra bat igorri:
«Etxean badukanez
janari, edari,
Ikustera laburki
nahi nauk etorri!»

- 2/ Arrapostu ein zion
bipil eta labur:
«Mandatarari maltzurra,
ez nuk hire beldur:
Nahiz nizan etxean
guzietaz xuhur,
Lanetikan bizia
badikeiat segur.»

- 3/ Bada negu beltzean,
aste bakar batez,
Hersturan gertatu zen
lan-biderik gabez.
Andria eta haurrak
zagotzan nigarrez,
Petirisans higuinak
bisita beldurrez.

4/ Astelehen goiz hartan
argira bi oren,
Ohetikan jeikirik
gogotan eman zen:
«Aher egonez ere
deus ezin ideren...
Mendian hil dezaket
erbi bat bederen!»

5/ Art-izarra zeruan
agertu orduko,
Mendietan zabilan
zerbait bilatzeko.
Nihun deus ez ageri
eguna doako.
Oihanean sartzen da
etxerat jausteko.

6/ Bet-betan aditzen du
zerbaiten azantza;
Ikustean jartzen da
lazturik gorputza:
Urritz baten gainerat
igaranik hartza,
Arbolaren azpian
Basurde bat gaitza.

7/ Uzta-hur har eta jan
hartz hura ari zen.
Artetan pikor zombait
zitzaien erortzen.
Hartzari eroriak
basurdeak biltzen.
Horrek zion hartzari
gogoa sumintzen.

8/ Ihiztari gaizoa
ez zen bere baitan,
Ez jakinez zer egin
tente zagoen han.
Izaldura nausi,
zain oro ikaran,
Baleki-bal'hartzari
emaiten da miran.

9/ Banp! Hartzaren burua
balaz hor da joa.
Hartza basurdearen
gainera badoa,
Diolarik: «Ikusak,
hi lagun gaixtoa,
guri dezaketanez
nik hire kaskoa!»

10/ Basurdeak hartzari:
Alimal' asprea,
Ez nuk ez ni hobendun,
har-ebak epea!
Hobe diagu biek
elgar aditzea,
Gaztigu baino lehen
gauzak pizatzea!»

11/ Hargatik hartzak zuen
eman pusakua:
Hartza ere abantzu
biziz gabetua.
Basa-urdearekin
eginik gudua,
Azken loak hartzeko
jin zaio ordua.

12/ Ihiztariak ez du
ez buruan hatzik!
Ez eta're egiten
gibelaz azantzik...
Laster ihizieri
hurbiltzen da botzik,
Ikusiz ez dutela
gehiago hatsik!

13/ Mandoan ezarririk
guziak artoski,
Irrintzinaz etxerat
badoa airoski.
Petirisantsi zaizko
zainak inarrosi,
Behatzen du eginez
lau bost aharrosi!

14/ Ihiztari urosa
etxera zenekotz,
Petirisants ere han
hurbil zen ordukotz.
Agintza hori hola
gertatu zelakotz,
Urrundu zitzaioten
hantik sekulakotz.

M.E.-ren kaieretik

Gure Herrian agertua (1923-ko hirugarren zenbakian).

Paper batean ekartzen du titulutzat: *Petirisants eta gizon beharra*.

EZKONTZA

Airea: *Andereño bat ikusi nuen.* (1)

- 1/ Gizon aberats baten semeak
Aitari zion galdegin:
«Hogoi eta lau urte baditu
Bizi naizela zurekin.
Bada oneski solas egin dut
Dama gazteño batekin.
Dote on batez ni laguntzeaz
Zindukea zuk atsegin?»
- 2/ Aita on harek erraiten dio:
«To bi miliun urretan
Eta bestalde izanen dituk
Hiru miliun lurretan.
Bainan gauza bat erranen deiat,
Adi-zak hire onetan:
Dirua gatik, gizonak gizon
Izan behar dik obretan!»

(1) Airea: Sallaberry, 220, 121 orri-aldean.

3/ Ontasunetan igeri baitzen
Etxeko seme bakarra,
Espos-laguntzat hautatu zuen
Nexka gazte bat beharra.
Bainan ondikotz ahatzi zuten
Aitaren erran zuhurra.
Laster histu zen hekien zorte
Aberats eta ederra.

4/ Urte bat gabe erraiten dio
Alabak bere amari:
«Zertako bada behatu naiz ni
Aberatsaren famari?
Urusa nahiz esposatu niz
dirudun handi jaunari.
Geroztik nigarra dut edari
Et'urrikia janari!»

5/ Amak: «Zer uste dun dela, haurra,
Ezkontza hortan sartzea?
Ala kaderan jarri eta han
Kantuz kitarra jotzea?
Ez dakina hik arrosak ere
Baduela arrantzea?
Estatu guzietan gizonak
Badin bere kurutzea!»

- 6/ Biak penetan gertatu ziren
Jaun-andre espos gazteak:
Negu beltzaren iduriko han
Egunak eta asteak.
Dirudun bainan gustu kiretsa
Bizitzearen hasteak.
Diruak baino gehiago du
Beti balio bakeak.
- 7/ Lur huntan gizonaren bizia
Nola den ezpaitzakiten,
Gauza ttipiak maiz min handia
Zioten aise egiten.
Atsegin ala atsegabeak
Esker-gabeki jasaiten,
Horrek zituen dohakabeak
Zorigaitzean emaiten.
- 8/ Beren aitaren kontseilu onez
Noizbait ziren hor orroitu:
Pena guziak behar direla
Eztitasunekin hartu.
Gogota onak zinez eginik
Jinkoa zuten otoiztu.
Harek zituen zorigaitzetik
Bide onerat bihurtu.

9/ Geroztik beren eginbidetan
Zerbait xedetan baziren,
Elgar maitatuz eta lagunduz
Gauza orotan bat ziren.
Ezkondu eta etzuten uste
Luzaz zirela biziren...
Espos maiteak, aingeru eder,⁸
Ehun urtetan hil ziren.

10/ Espos horiek etsenplu on bat
Guri emaiten dute hor:
Penarik gabe gertatzen denik
Lur huntan ez baita nehor,
Bat bestiaren huts guzietan
Izan gaiten bai jasankor,
Ongi eginen saristatzeko,
Jinkoa ez da ahazkor.

M.E. (1924)

Haren kaieretik hartua.

EGUR-BAZKARI BATEZ EMANAK

Airea: *Lili bat ikusi dut...* (1)

1/ Hunat bildu girade
omere onean
Egurketari zonbeit
Erretoranean;
Bazkaria joan zauku
botzik mahainean:
Bi pertsu zor zaizkio
kafe-aintzinean.

2/ Eskerrak oroz lehen
jaun Erretorari,
Harek plana eginik
besta eder huni:
Berak ditu hautatu
arno'ta edari,
Baitaki gure gostu
'ta zintzurren berri!

(1) Airea: Kantuz, 53; 69 orri-aldean.

3/ Bainan beha baitago
hantxe sukaldetik,
Kozinertsak har beza
gure bihotzetik
Konplimendu azau bat
lorez beztiturik,
Platen, gustuz apaintzen
ez baitu parerik.

4/ Alta serbitzariak
dabantal xuritan
Zoin gurbilki ez gaitu
zerbitzaren plantan!
Ixil-ixila dabil
platak eskuetan,
Iduri pinpirina
Lili-baratzetan!

5/ Jan-artean lagunek,
jaun ertora buru
ixtorioz gaituzte
nasaiki jostatu.
Ilar lodiz solasa
Benatek erein du;
Ea emanen dakon
uztak pagamendu?

6/ Bazkari eder hunen
arrazoin ederra
Oihanetik heldu den
etxeko egurra:
Jainkoak oihanari
emanik indarra,
Zuzenki patxuer da
herriko ertora.

7/ Egurrak bero beza
etxe hau neguan,
Gure artzaina dadin
bizi soseguan,
Otoitz kartsuak einez
supazter xokuan,
Bere prediku argi
xorrotxak goguan.

8/ Egurrak lagun beza
gelaria berdin,
Saltsak apaila ditzan
gatz'ta biperrekin!
Beti zure talenduz
ditzazula egin:
Mari, zure nausiak
baduke atsegin!

- 9/ Egungo erbikia
egur ekar-sari,
Aise atxeman daite
segur egurkari!
Entzunen dira mendiz
orgak karrankari
Ederki kargaturik
berriz hunat ari!
- 10/ Pertsu hauk eman-eta,
behar dut gelditu,
Kafeak berorikan
nahi baitu hartu.
Bestak alegrantzia
legez hartze baitu,
Denek betan polliki
ein dezagun kantu.

Mañex Artzaina (1925)

AMA BIRJINARI

Airea: *Uhalde baten pare.* (1)

Kobla

Errepika

The musical score consists of five staves of music. The first three staves are labeled 'Kobla' and the last two are labeled 'Errepika'. The music is written in a single system with a key signature of one flat (B-flat) and a 6/8 time signature. The notation includes various rhythmic values such as eighth and sixteenth notes, rests, and slurs. The first staff begins with a treble clef, while the subsequent staves use a bass clef. The piece concludes with a double bar line.

(1) Lertxundi: *Kantikak*, Bayonne, 1948, 220.

- 1/ Nahiz ni enizan gai
zutaz mintzatzeko,
Ama, badut xedea
zure aipatzeko,
Birjina garbiena,
zu ohoratzeko
Eta egun goraki
zure otoizteko.
- 2/ Elizan duzu guziz
zuk maite otoitza,
Bainan desertu huntan
da ene egoitza.
Umilki nahi dautzut
altxatu bihotza.
Otoi adiezazu,
Ama, ene botza.
- 3/ Itsasoak kolera,
tirainak bortitzik,
Suntsitu nahi ditu
guziak untzitik.
Gizonaren indarrek
ezin egin deusik,
Jinko eternalaren
botereak baizik.

- 4/ Orduan mariñelek
beren lanjeretan
Porturik segurena
dute zure baitan.
Jinkoak, zu adituz
zure otoitzetan,
Emaiten tu tirainak
beren zedarritan.
- 5/ Badira abokatak
tribunaletako.
Zu abokat saindua
zeru-lurrendako:
Merezi gaztigutik
ene libratzeko,
Nik ere hartzen zitut,
Ama, ararteko.
- 6/ Aberats ala pobre,
gizonen arraza,
Jainkoaz juiatzera
oro bagoatza.
Herstura hartan nork daut
eginen laguntza?
Zu zira, zu, Maria,
ene esperantza.

7/ Egidazu oraitik
ene heriora
Jaunaren otoitzetik
ez nadien bara:
En'azken orenean
jin zaizkit aldera,
Zure bihotz amultsuz
ene laguntzera.

Mañex Etxamendy-k

N.B. — *Eskualduna* astekarian, 1925-ean, atxeman dugu berriz agertua hazilaren 13-an, baina le-
rro bat aldaturik seigarren koplari:

merezi dutan gaztigutik libratzeko...

ez baita xuxenago.

Paper batean, bertsu horiek ekartzen dute:

"Airea: *Oi mirakulu guziz espantagarria*". Eta ti-
tulua: "*Andre dena Mariari*". Mañex Etxamendi-ren
kairean ere bai.

Kaliforniako mendietan egina.

XAHAR BATEN AUHEN SAMINAK

Airea: *Eman dautazun buketa zertaz
egina zinuen.* (1)

- 1/ Jainko Jauna, zonbat aldiz
etzaut ilundu bihotza!
Ilundu eta zauritu
ikusirik zorigaitza.

- 2/ Aitaso bat ikusi dut
ahultzen eta xahartzen,
Hil mihisea bezala
egunez egun xuritzen.

- 3/ Gaixoa han aditu dut
supazter xoko batean
Bakarrik oi-hu-nigarrez:
ixildu zen ni jitean.

- 4/ Erraiten zuen: «Ondikoz,
oi ene ardi xuriak,
Zikiro eder bai eta
ene gaixo axuriak!

(1) Aire hau, ez-ezaguna dugu.

- 5/ Oro beharko zituztet
utzi nausi berri bati,
Ezpainiz igan ahalko
mendi hoitarat engoiti.
- 6/ Eztitut ja iraganen
berro ziloak jauzian,
makila firurikatuz
lehen bezala lorian.
- 7/ Iratzez ez tut eginen
maldetan gau-etxolarik
Ez eta erabiliko
xilintxa ez xirularik.
- 8/ Nihaurek deitzi esneaz
ez dut kaikurik beteko,
Nihaurek egin gasnarik
gaurgero ez dut salduko.
- 9/ Erriak gogortu zauzkit,
laneko ez ditut kara,
Zangoak ere doazkit
ihintzean lerra-lerra.
- 10/ Oihanburuko kaskora
doi-doia heldu bainintzen,
Bi urte hauntan, gaixo ni,
bide horrek nu lehertzen.


- 11/ Gero eta nekezago
dakarzkite eskalapoinak,
Halaber uritakoa,
jatekoa eta denak.
- 12/ Maiz hats-bahitua nago
patarra ezin iganez.
Oraino pindar goxo bat
gogoan banu, bainan ez!
- 13/ Hirian, urrun, galdurik
dabilan ene haur hura
Bil uste ukan dut luzaz
neure ordaintzat etxera.
- 14/ Bai herrestan nindabilan,
bainan bihotza gorarik,
Battitta ni bainoago
nukeiela amesturik.
- 15/ Amesturik eskualdeko
etxetarik hazkarrena
Zitakela malda huntan,
hainitzez ere, harena.
- 16/ Haren artalde gizona
baino aberatsagorik
Nehork etzukela nihoiz
bazter hautan ikusirik...

- 17/ Anartean errientak
ene Battitta ebatsi,
Buru-bihotzak hitz hutsez
betikotz arrunt nahasi!
- 18/ Egia zuten zaharrek:
eskolarat igortea
Da langile tzar, seme tzar,
eskualdun tzar egitea!
- 19/ Nahi duenari ontsa
ogia erein eta jo,
Aski zaio jakitea
kondatzen hiru-lauraino!»
- 20/ Bainan barka dakioke
bihotz-minez erreari
Hautemaiten duenean
etxea erortzen ari...

M.E. (1925)

KATOLIKO BATASUNA

Airea: *Eskualdun bat zen itsu eta pertsulari.* (1)



(1) Airea: Kantuz, 101.

- 1/ Horixe da Galerna
Frantzia barnetik:
Denak inarosten tu,
zoin bere gunetik.
Apalak, aberatsak,
barnetik, kanpotik,
Bai etare Eliza,
guzien gainetik.

- 2/ Galerna horren pean
xede hau badute:
Fraide eta serorak
kendu nahi tuzte.
Horier jazartzeko...
hobena nun dute?
Holako desmasiak
geldi ordu luke.

- 3/ Gaixtaginak kargutan
ditugu ikusi;
Gure bake gozoa
hek dute nahasi...
Otsoa artaldean
ez uztekoz nausi,
Iratzartzen norbaitek
behar zuen hasi.

4/ Castelnau jenerala
hor zauku xutitu.
Gu haren oihuari
milaka segitu.
Oraitikan elizak
armadak baditu.
Jainko Jaunak zerutik
lagunduren gitu.

5/ Soldado izan gira
Erresumarentzat,
Bai eta obedient
hango nausirentzat.
Soldado gira orai
gur'elizarentzat,
Fidel izan gitezen
buruzagientzat.

6/ Fidelki bat eginez
orok elgarrekin,
Indarrik handiena
dekegu gurekin...
Xinaurri ta urzuak
zer ein zuten behin,
Kondatuko dautzuet
mila plazerrekin.

7/ Itsas hegi batean,
hor, jaun-ihiztari
Tiroa tiratzera
zohan urzo bati;
Xinaurriak urzoa
baitu urrikari,
Ausiki bat ein zion
ihiztariari.

8/ Ihiztari jauna zen
jauzian gibeldu
Eta urzoa aldiz
airian partitu.
Jaun harek xinaurria
itxasoan sartu:
Gaixoak, hor, bizia
abantxu du galdu!

9/ Xinaurriaren lagun,
urzoa, flafla-fla,
Lasto piru batekin
han zen berehala.
Xinaurria emanik
lastoño hartara,
Mokoan baderama
berriz leihorrera!

10/ Hersturetan bagira,
zorigaitzez, egun,
Gu ere izan giten
batzu bertzen lagun:
Katoliko guziek
bat egin dezagun!...
Jainkoa norekin den
ez dea ezagun?

Mañex Etchamendy,
Ezterenzubikoak

Kantu hau agertu zen, 1926-eko maiatzaren 28 an *Eskualduna* astekarian. Eskutan dugun paper batean titulua da: «Kristoren alde».

ALARGUNTZA ERREKARDARIA

Airea: *Lili bat ikusi dut baratze
batean.* (1)

- 1/ Ene herrian bada
alarguntsaño bat:
Nola bizi den, nehork
ez lakike hanbat.
Erne dabila eta
ixil harat-hunat:
Hazteko ere badu
haur dotzen'erdi bat.
- 2/ Adin ederrean zen
andre hau ezkondu,
Mutil gazte prestu bat
bere senar hartu:
Bainan munduak plazer
osorik ez baitu,
Ezkondu eta laster,
zitzaion eritu.

(1) Airea: Kantuz, 53; 69 orri-aldean .

- 3/ Nahiz beti ximplea
zagon osasunez,
Bizi izan zen urte
andanatto batez,
Etxea ere jarri
garniturik hurrez:
Andreak hazi behar
bere esku-lanez.
- 4/ Horren espos maitea
zonbait urte badu
Jainko onak diola
bere ganat hartu.
Hargatik, nihoiz ez du
kuraiea galdu:
Gero'ta gehiago
nahi du bermatu.
- 5/ Goizetan goizik doa
norapeit etxetik,
Hala nola erlea
bere kofoinetik;
Bizia ateratzen,
batzutan herritik,
Bortuak iraganez,
berdin Españatik.

- 6/ Astean hiru egun
lanean sartzen'tu,
Bertze hiru egunez
egiten mandatu;
Aitzurra utzi eta
egiten du tratu,
Zaldi ttipiarentzat
Krabextuak baitu.
- 7/ «Goazin bideari!
Arri, pullo, arri!
Urratsa xehe eta
kuraiea larri.
Gau illunak bidean
hartzen banu sarri,
Ni gidatzeaz berme,
beharko hiz jarri».
- 8/ Haren bideko griña
udan da eztitzen;
Zeren kabalez diren
mendiak beztitzen.
Han, joaren errepikak
orotan aditzen:
Heien oihartzunak du
gogoia arintzen.

9/ Bainan ondiko, hor da,
ai, negu dorpea!
Bidaiaren eiteko
labur da epea...
Amak, bere haurrentzat
jatekoz betea,
Gau beltzean behar du
pasatu bidea!

10/ Astoari loturik
esku batez tinki
Bidexketan badoa,
eror eta jeiki.
Artetan, bere boza
altxatuz goraki,
arrosarioa du
erraiten kartsuki.

11/ Haren haur xume heiek,
ilundu ondoan,
Metan emaiten dire
supazter xokoan:
Aldizkatuz bortara
nahi dirade joan,
Amaren harrabotsik
badenez kanpoan!

12/ «Ah! bidea luze dun,
gaua ere ilun!
Amaren harrabotsik
ez entzuten nihun!
Bortuak gora ditun;
han paretak legun:
Elurretik bizirik
jalgiko ahal dun!»

13/ Haurrikan gaztenak du
zabaltzen atea,
Bere esku ttipiaz
joz begitarte...
Berehala: «Hor da, hor,
oh, ama maitea!
Nik aditzen dut orai
pulloren joarea!»

14/ Laster ama maitea
etxean da sartzen:
Bere haur orok dute
betan besarkatzen.
Jainkoari dituzte
eskerrak bihurtzen:
Zeren lanjerretarik
dituen beiratzten.

15/ Amak prestatzen deie
gustuz afaria,
Guzieri bihurtuz
umilki grazia.
Solasik garbienez
beterik mihia,
Beti alegeraki
johan du bizia.

16/ Uros da, penen gatik,
kontent bizi dena;
Beti nekez bizi da
esker gabe dena.
Maiz sofrikariotan
badago gizona...
Imita dezagula
Salbatzaile ona!

Etchamendy

Eskualduna astekarian agertua (17-2-28)
M.E. ren kaieran, airetzat aipatzen du: *Argizari ederra, argi egidazu.*

Kaieran badira kanbiamendu batzu:

Lehen koplan: *ez dakite hanbat*; bigarreanean: *mutil ixil prestu bat*; laugarreanean: *Senharra, orai zombait urte egiten du*; bortzgarreanean: *lanerat etxetik*; seigarrena hunela bururatzen du:

Gauzen erabiltzeko
astoño bat badu:
Hau ez baitzuen nahi
bi sosetan saldu.

Zazpigarrenaren bururatzea:

Hi ene gidatzaile
beharko hiz jarri.

Zortzigarrena hunela hasten da:

Uda jiten denean
da alegeratzen
Zeren diren mendiak
kabalez betetzen
Juaren errepikak
han ditu aditzen...

Bederatzigarrena:

Bainan gero heldu da...
eta bururatzean:
gauaz behar pasatu
parte bat bidea...

14-garrena hunela bururatzen da:

Lanjer guzietarik
baititu beiratzen

15-garrena hunela hasten da:


Amak prestatzen deie
gustuz afaria,
Bere haur maiteentzat
galdatuz grazia...

16-garrena arras bertzelakoa da:

Asko jende, nun nahi,
ditugu ikusten
oro esker-gabeki
baitituzte hartzen
Penatuak direner
diotet erraiten:
Ama miretsgarri hau
imita dezaten.

LURRAREN UZTEAZ

Airea: *Adizak ezkongeia... edo Ene izar
maitia... (1)*



(1) Airea: Sallaberry, 1870, 36 orri-alde.

- 1/ Suieta xahar bainan
kantore berria:
Alfertzen ari dela
biziki jendia!
Laborariak hartzen
hiriko bidia...
Lanean guti ariz
ongi bizitzia,
Horra zer litakeien
hainitzen nahia.
- 2/ Zentzu aski duenak
dezake konpreni
Erran dugun manera
ez dela komeni,
Bizitzekotz lanean
behar dela ari.
Jainkoak egin dauku
manamendu hori.
Xuhurra dukeiena
dakiola segi.
- 3/ Etxean dagoela
beraz zentzuduna,
Hortarik heldu baita
haren zoriona.
Ez da ez beti uros
hirirat doana:
Han ere aurkitzen da
segur asko pena:
Nahi baino maizago
hastio den lana.

- 4/ Hirian ikusi dut
herritarra frango,
Hemen aisa egiten
baitzuketen bringo,
Han beti kargan eta
ororen esklabo,
Bixtara heldu baino
han hil nahiago:
Hoi en amets ederra
hortan da akabo.
- 5/ Hau ere behaut erran,
ez bainiz herabe,
Baitut zombait kusirik
hotarikan ere
Pala eta jatsekin
hiri-xahutzale,
Hemen gaindi lur-lanaz
zirenak ahalge,
Erakaspén eder bat
ukanik baitaude!
- 6/ Askotan holaxe da
jaun-andren bizia!
Ez ote doa triste
hola familia?
Eta biek badute
maite ostatia,
Zoin den deitoragarri
haurren estatia,
Ogitikan hasirik
Heien miseria.

7/ Hok zer ote ditaizke
hurran egunetan?
Nola kusten baitute
orai bazterretan
Etsenplu on gutixko
beren ait' ametan.
Katixima ez haizu
gaixoek eskolan!
Zonbat burraso makur
mende triste huntan!

8/ Dolugarri, langile
federik gabia!
Harentzat ez da errex
zuzen bizitzia.
Denentzat izan nahi
hemen pagatia,
Katiximan ez baitu
hauze ikasia,
Horren penen saritzat
dagola zeria.

9/ Behazazue bada
hiriko plantari:
Heriotzea frango,
ohointzak nun nahi!
Ez jakin nola fida
asko gizoneri:
Jainkoaren Legea
ez dute ikasi:
Gizonenez gisala
ez dira beldurti!

- 10/ Jainko Jaunaren ordain
ait'amak mundian,
Haurrak atxikitze
ahalaz etxian.
Beti xuxen gidatuz
zeruko bidian,
Bat ere ez dadin gal
zuen eskasian,
Aisa kondu maiteko
azken egunean.
- 11/ Gu herrian baigaude
holakorik gabe,
Sortu ginelakotzat
laborari seme,
Burraso giristino
hoberenen ume,
gostura bizi gira
elgarren fagore;
Lanak ere ez gaitu
lotsatzen batere.
- 12/ Ez girade bakarrak
herrian gaudenak,
Hemen baitaude ere
nexka hoberenak.
Etsenplu on emaile
etxean daudenak,
Geroko haurrentako
behar diren amak,
Hoitan har baititazke
geroko lagunak.

13/ Andereño horier
hau dut erran nahi:
Lagun zenbait baitute
hirietan sehi,
Karakolak bezala
hek direla bizi,
Irabazi guziak
soinean ibilki:
Ezkondu nahi, bainan
mutxurdin egoki!

14/ Barka dezadazue,
hau erranik hemen:
Egia, den bezala,
beti dut emanen.
Donado bat naizela
duzue erranen:
Andrerik ez dudano
hala naiz egonen,
Ezkondu nahi nuke
zahartzian bederen.

M.E.

Eskualduna-n (1928-ko errearoaren 8-an).
Baditake aspaldikoa zen eta orduan ager-
tua berriz ere, bertso-aldi hori.

IXTORIO-MIXTERIO

Airea: *Dotzena bat pertsu berri...* (1)



(1) Airea: Makazaga-ren *Xenpelar-en Bertsuak*, 63 orri-aldean.

- 1/ Don Andres eta Xabadin,
Jaun-andre onak Garazin!
Senar-emazte higatu dire
Eihara batekin.
Pausua guti, lo arin,
Harat joan eta hunat jin,
Herri guzirat ereman dute
zonbeit zaku irin!
- 2/ Behin zer zeien gertatu
nahi nuke esplikatu:
Etxetarikan etziotela
Petirisants kendu...
Anitz gaizki eiten baitu,
Nahi zuten gaztigatu:
Joan den urtean, mendi gainean,
lo zuten kausitu.
- 3/ Bi mutil gazte doazko,
Beldurrik gabe lotzeko.
Petirisants hor bentzuten dute
bi-biek zalusko;
Estekaturik untsasko,
Bai zango eta bai beso
Eihara-pean ezarri zuten
betikotzat preso.

4/ Nahi zuten erakutsi
Ez dela ez beti nausi!
Petirisantsi egin zioten
mehatxu, erasi:
«Etziauzkuk orai itsusi!
Ez duk eginen ihesi!
Gaizkia nola pagatzen duten
behar duk ikusi!»

5/ Petirisants, hor, lasterka,
Ointusturikan jarri-ta,
Espakaturik ihesi doa,
karrikaz-karrika...
Emazte, hurrek marraka;
Gizonak berriz oihuka:
«Gaixtagin hori ez dezakegu
nehorat moldaka!»

6/ Gizon guziak inguru,
Petiritsantsen haiduru;
Harmaturikan egiten dute
batzuk bester oihu:
«Petirisants hemen dugu!»
Arrastatu behar dugu!»
Petirisantsek guzien gatik
ihes egiten du.

- 7/ Afrikan ala European,
Zamal-zarrean kalopan,
Zalu-zalua hura badabil
bazter guzietan:
Ikusiz gure herritan
Langile guti landetan,
Petirisantsa irri faltsuan
dago lorietan.
- 8/ Segituz laborantzari,
Biltzen dugu osagarri.
Ontasun aski, eta nasaiki
gorputzen hazkurri.
Bainan da deitoragarri,
Gorputz-arimen galgarri,
gazteria da lanaren ihes,
hirirat etorri!
- 9/ Oro besta, oro buket,
Jan-edan on edo banket,
Bazter orotan holakorikan
sobra dela dauket.
Edari, kafe, xokolet,
nork ere baititu laket,
Petirisantsek joko tu aise,
zeren diren malet!

10/ Lusagar, gaztena, ilar,
Esne, arto eta xingar...
Menaiu horrek emanen dauku
gorputzean indar!
Hartuz aitzur, goldebanar,
Laborantzan gogotik ar!
Petirisantsik etzauku jinen,
ez egun, ez bihar!

Mañech Etchamendy

Eskualduna, 24-VIII-28. Bere kaierean titulua ezarri du Haurrentzat.

OBEDIENTZIAZ

Airea: «*Ikusten duzu goizean...*» (1)

- 1/ Itzain bat zohan bidean
idi-orgen aintzinean,
akulua soin gainean;
idiek ere segitzen dute
nausia urrats onean;
gauaz ala egunean
gertatzen ziren gunean,
beti leialtasunean.

- 2/ Noizbait bada hasi ziren
idiak arranguratzen
anitz zirela nekatzen:
bide patarrak lur-lan gogorak
zeieztelarik gertatzen;
nausiak ditu laguntzen,
adarretarik tiratzen,
akuluttoaz sistatzen.

(1) Airea: Kantuz, 21; 30 orri-aldean.

- 3/ Akuluaz ez gustatuz,
hasi ziren sudur-huchtuz,
orger ostiko tiratuz,
itzain onari eskapatzeko
egin ahala bermatuz;
nausia zoan penatuz
idiak ezin moldatuz,
beti zohatzin tematuz.
- 4/ Temak deus onik ez dauka,
idiak bide bazterka
partitu ziren lasterka;
nausiari ez segitu nahiz
hor eman ziren trebeska,
herrestan eta pumpeka,
jo zuten peko erreka,
ein ziren mila purruska!
- 5/ Akuluaren gisara
egiak gure jaidura
sumintzen dauku ardura;
gure buruz gain bizi nahiak
eiten du gure malurra;
utziz urgulu galkorra,
gaiten beraz gu baitara
bizitzekotz deskantsura.

6/ Gauza bati dut pentsatzen,
nere baitan dut senditzen,
ez dela aise zentzitzen...
gazte maiteak, ikas zazue
nagusier obeditzen,
kontseilu onen segitzen,
behar delarik sofritzen;
gero ez da urrikitzen.

7/ Sortzean inozentzia,
gero jiten da zentzia,
Jaunaren probidentzia;
Jainko onari obeditzia
zer bake gozo ezta!
nik ere hortan bizia
iragaiteko guzia,
galdegiten dut grazia.

Mañex Etchamendy

Eskualduna, 1929/X/18.

Herria, 1966/VII/21.

SENPEREKO ITZULIA

Airea: *Argizagi ederra, argi egidazu.* (1)

The musical score consists of four staves. The first staff is in treble clef with a key signature of one flat (Bb) and a 2/4 time signature. The second staff is in bass clef with the same key signature and time signature. The third staff is in bass clef with a key signature of one flat and a 2/4 time signature. The fourth staff is in bass clef with a key signature of one flat and a 2/4 time signature. The music features various rhythmic values including quarter, eighth, and sixteenth notes, as well as rests and accidentals.

(1) Airea: Kantuz, 52.

- 1/ Mandatari leial bat
jin izan zaut aurten;
«Gauerdiko meza bat
nun zelebratzen den,
Behar duzu ikusi
aldi bat bederen.
Hortako kausi zite
Lapurdin Senperen!»
- 2/ Hegoa epel far-far
heldu zen menditik.
Izarrek distiratzen
zeru-gain hartarik.
Ardiak deskantsuan
mendian utzirik,
Bidian emaiten niz
makila harturik.
- 3/ Guziak ixil daude
mendi zelaietan,
Huntzak hurubiz ari
oihan erreketan,
Xakurrak ere saingaz
urrun herrietan,
Senpererat heltzen niz
gauaz lorietan.

4/ Ordukotz ari nintzan
herrirat hurbiltzen.
Kantu errepika bat
hor dut nik aditzen...
Gauaren gau minean
nor nuntik ari zen?
Herriko jendek dute
eliza airatzen.

5/ Gauerdiko mezako
deia dute joiten,
Nahiz han arrotz nizan
aintzina niz joaiten.
Eliza selairurat
nuzu igaraiten,
Neure doi-doia leku
nunbait hatzemaiten.

6/ Eliza dirdiran zen,
dena argitua.
Eskuara garbienez
oi han zen kantua!
Kantuaren arbola
han da landatua,
Nik dakitan norbaitek
ongi moldatua.

7/ Meza akabatzean
ikusten dut gero
Mahain saindurat buruz
doatzila oro.
Jesus errezebitzen
denek lerro-lerro...
Girixtinotasuna
zinez hor da bero.

8/ Girixtinoen kontra
balinbada lege,
Hor beren sinestean
oro fermu daude;
Enplegatuak ere
ez dira ahalge,
Guziek goresteko
zeruko Errege.

9/ Holako jendeketa
bilduz elizarat,
Ikusiz hain ederki
egiten orok bat,
Bihotzera jiten da
halako goxo bat,
Egiaz iduri du
zeruko xoko bat!

10/ Gure besta ederra
baitzen akabatu,
Berriz mendirat buruz
nintzan abiatu.
Jaun batek ninduen hor
eskutikan hartu,
Karitatez arabez
ber'etxian sartu.

11/ Mahain baten aldean
ninduen ezarri,
Pents'ahal sokorriak
zauzkitan ekarri.
Azkenekotz ez nintzan
gose ez egarri.
Jaun on hura izan zen
ene xoragarri.

12/ Jaun horren presentziak
ninduen xoratu.
Denbora bazoala
hor nintzan orroitu:
Ardi-etxolak zauztan
betan gogoratu,
Eta desertur gisa
nintzan eskapatu.

13/ Ene egitateaz
ardura orroituz,
Geroztik hunat nago
ezin kontsolatuz.
Bizi behar bidean
beti hobekituz,
Ene denbora doa
ezin korreituz.


14/ Ene etxolan nago
huntaz pentsaketan,
Jaun on hura nik nola
paga dezaketan!
Nahi diot igorri
Eskualdun kasetan
Esker mila bederen
errezebi dezan.

M.E.

J. Barbier jaun erretoraren denboran
(1930).

IXTORIO-MIXTERIO, HAURRENTZAT

Airea: *Mehetegiko xakurra*. (1)



- 1/ Etxaldeko nausi Martin
Iraulden ari zen behin
Bere idi ederrekin
Eta golde-nabarrekin...
Bertan hartz bat zitzaion jin
Gose handisko batekin.

(1) Airea: Kantuz, 119.

- 2/ Hartzak dio nausiari:
«Idi bat emadak niri!»
Martinek aldiz hartzari:
«Orai iraulden nuk ari.
Lan hau baitut egin nahi,
Orentto bat egon hadi!»
- 3/ Axeria zitzaion jin:
«Zer duk horren trixte, Martin?»
«Hartzak idi bat galdegin,
Hortaz ez baitut atsegin,
Har ez dezadan berekin,
Nik ez dakiat zer egin!»
- 4/ —«Ah! hori baizik ez baduk
Malurrik batere ez duk!
Hartza hantxe etzana duk:
Aise enganatuko duk;
Hori merke eginen duk;
Bi oilasko gaztetan truk!
- 5/ «Joanen nuk hantxetara.
Oihu einen diat gora:
Zer da to hantxeko hura?
Hurbil hakio ondora;
Nabarra altxa-zak gora
Eta tanpez utz gainera!»

- 6/ Hitz harturik badoatza.
Egiten du oihu gaitza:
«Zer da hantxetan beltz-beltza?»
Martin kexurik bihotza,
Harturik nabar zorrotza;
Hartaz kalitzen du hartza.
- 7/ Axeriak: «Horra, horra!
Orai hor duk hil-gogorra!
Eni duk eman beharra
Oilasko pare ederra!»
Martin baitzen hain xuhurra,
Igorri zion xakurra.
- 8/ Axeria da izitzen,
Bere xilorat hurbiltzen.
Ez da han luzaz egoiten.
Oraino barura baitzen,
Berriz ere da itzultzen:
Martini beha gelditzen.
- 9/ Martinek du lana uzten,
Bere etxalderat jausten,
Idiak ditu laxatzen,
Buztar-uhalak han uzten;
Axeria da hurbiltzen,
eta uhalak ebasten.

10/ Martin kexu berriz ere.
Astoak dio: «Nik ere
Satisfatuko haut aise.
Bazka on bat baituk hortxe,
Hortan nahi banuk ase,
Hiru uzker egin-artel!»

11/ Hitzak elgarri emanik,
Martinek baietz erranik,
Astoa doa arinik.
Bidea zalu eginik,
Axeri-xiloan jadanik;
Han emaiten da etzanik.

12/ Axeria zen ohartu,
Xilotikan ateratu.
Astoa nahiz tiratu,
Uhalez du estekatu,
Laster astoa xutitu
Eta kalopan partitu.

13/ Harriturik axeriko
Han jartzen da kokoriko,
Astoari erten dako:
«Ez ote hiz eroriko?»
Bainan astoa zaluxko
Etxean zen eguerdiko.

- 14/ Astoaren balentria,
Ase bat irabazia...
Martin dena malezia,
Pentsaketa zen hasia.
«Astoa hor asetzia
Ez dukek abilezia!»
- 15/ Martinek du bazkan sartzen
Eta makilaz zanpatzen.
Martin zitzaion segitzen,
Kalapitan han zabilten:
Aipatu hiru azantzen
Egitea behar baitzen.
- 16/ Ez aserik heldu dena,
Bai beharrezkoa dena:
Huna nun duen lehena,
Geroxago bigarrena,
Geroan hirugarrena...
Hori izan zen azkena.
- 17/ Dena zauriturik hola,
Gero kanporat zoala,
Erori zen berehala
Lurrerat asto herbaila.
Han dago hila bezala,
Ahoa zabal-zabala!

18/ Arrano, bele, menditik,
Bildu ziren urrunetik,
Miruak dio goratik:
«Hori hil duk oraikotik!»
Hasten zaio hain gogotik
Bele bat kisk-kisk ahotik.

19/ Hegaztinak atseginez,
Astoak burutik minez.
Martinen gaizki eginez
Koleran zagon zin-zinez.
Belea ahora jinez,
Hor tinkatzen du haginez.

20/ Astoa da krak xutitzen,
Etxerat buruz partitzen.
Etxekandrea ari zen
Hain xuxen labe gorritzen:
Ez baita guti harritzen
Zer ote zaion hurbiltzen!

21/ Asto gaizoa firrindan,
Bere belea dilindan,
Hok ikusiz bere bixtan,
Andrea zen ikaretan.
Labe-haga su-garretan
Hartaz joiten du lumetan.

22/ Beleari sua lotu,
Astoia aldiz oihestu.
Laster bordara zen sartu.
Hantxe berean gelditu.
Bordan zen sua nausitu.
Eta guziak suntsitu.


23/ Horra nausi zikoitzari
Zer malur zaion ekarri:
Kalte eginez besteri,
Bere ongi egileri;
Nahi dena uros bizi,
Beti xuxen ibil bedi!

M.E.-en kaieretik. (1932)

Bizpahirutan agertua bertze titulu batzuekin.

BAKEAZ

Airea: *Lo, lo, ene maitea.* (1)



1/ Adan bai eta Eba,
lehen burrasoak
Uros egin zituen
lur huntan Jainkoak;
Begiratu baluzte
Lege zerukoak,
Uros gintezken ere
heien ondokoak.

(1) Aireia: Kantuz, 27.

2/ Leku dohatsua zen
mundu hau, hastean,
Adamen bekatuaz
kotsatu artean;
Orduan jarri ginen
zori-gaitz batean.
Nor izan da geroztik
osoki bakean?

3/ Mundu hau bi partetan
jarri da ordutik:
Ona alde batetik,
gaixtoa bestetik.
Gizaldea doatzi
bat besten ondotik,
Bainan guduka beti
bizi da nunbaitik.

4/ Gure zortea bada
gudukan artzeco,
Gure eginbidetan
ez da lotsatzeco.
Zorigaitza bagindu
errebelatzeco,
Jakintsuak badira
gure gidatzeco!

5/ Oi, zer inozentziak
gizonen bizian!
Jeloskorrek ardura
hau dute mihian:
«Jende nekazailea
da maiz miserian,
Aberatsa uros da
beti aiserian».

6/ Bizia ahal baliz
sosarekin eros,
Orduan diruduna
zein litaken uros!
Bainan orok hiltzea
zor dugunaz geroz,
Ez dugu zeren izan
batzu besten jelos.

7/ Diote ari dela
jendea abiltzen:
Zer nahi lan egiten,
airean ibiltzen...
Jakitate horiek
nuntik ditu biltzen?
Eta dohain guziez
nola baliatzen?

- 8/ Lan askoren eiteko
bada abantaila,
Aisago bizi dea
jendeki apala?
Zori-gaitzez nunbaitik
pizten bada gerla,
Gizona suntsitzen da
errautsa bezala.
- 9/ Asko jenderen baitan
bada zuhurtzia,
Beste anitzen baitan
zonbat malezia!
Gaixtoa onarentzat
zoin den bekaiztia
Jakiteko, aski da
ongi behatzea.
- 10/ Jenden artean bada
anitz arrangura:
Jelosia, aharra,
ta gerlak ardura;
Herri-erresumetan
zonbat nahastura!
Ez da aise xuxentzen
gizonen aztura!

11/ Onaren agintza da
beti amodioz.
Gaixtoa mendekatzen
Satanen medioz.
Zuzena lehertua
anitz suplizioz.
Oro jakinen dira
azken judizioz.

12/ Deus kontsolamendurik
lur hutan badea?
Bai, gaitzen sendagailu
badugu fedea.
Gure nausitzat hartuz
Kristo Erregea,
Harekin badukegu
betiko bakea.

M.E.-en kaiaretik. (1932)
Geroxeago agertua.

ESKUALDUNA-REN ITZAL-PEAN

Airea: *Lili bat ikusi dut.* (1)

1/ Gure astekaria
dugu *Eskualduna*,
Garazin sortu zela
orok dakiguna;
Donazarren hartu
hain landare ona,
Baionako lurrean
landatua dena.

2/ Baxenabarren sortu,
Lapurdin da hazten,
itsas-haizeak ez du
batere izitzen;
Berrogeita sei urte
aise tu ekartzen,
Jabek ezin hobeki
baitute artatzen.

(1) Airea: Kantuz, 53; 69 orri-aldean.

- 3/ Erroak lur onean
arras barna ditu,
Adarrak luze, zabal,
airean hedatu.
Eskual-herri guziak
bere pean gitu,
Gu azkar eta sano
nahiz begiratu.
- 4/ Zuhaitz dohatsuari
xoratuak gaude:
Enborra sendo eta
ostoak tu berde;
Bere lore pollitak
nehoiz galdu gabe,
Aste guziz fruituak
hondurik hor daude.
- 5/ Eskual-herritik kanpo,
zenbat eskualdun den!
Hek ere haurrideak,
ez ditut ahazten.
Bere fruituak ditu
heier hel-arazten,
Afrikan, Amerikan,
oro ditu hazten.

6/ Gerlari, laborari,
hor dauzka aldean,
Heien sokorritzeko
bai lehen galdean;
Denak laguntzen gitu
gure eskualdean,
Mañex kanpoan eta
Mayi sukaldean.

7/ Pilotarier ditu
eiten ohoreak,
Zeren diren munduan
parerik gabeak;
Xoragarriak dira,
oro zoin hobeak;
Horiek deitzen tugu:
Eskualdun loreak!

8/ Pertsulariak ere
Ditu maiz aipatzen;
Heien neurtitz kartsuak
guziak agertzen.
Irri-solasen lagun
potretak ezartzen,
Bihotz guzietarik
trixtezia kentzen.

- 9/ Huntako bereziki
hartze du estimu:
Arbasoen usaiez
eiten gitu primu.
Moda tzarrak uzteko
ez baitira damu,
Eskualdun azturetan
gaude beti fermu.
- 10/ Iguzkiak zerutik
baitu distiratzan,
Hola du *Eskualduna*-k
jendea argitzen;
Gure baitarik ditu
lanoak urruntzen,
Argitzen gitu eta
Fedean sustatzen.
- 11/ Barnea bezain eder
gaineko axala,
Ez dezoket atzeman
den mendren itzala:
Erne, argi, garbirik,
orai den bezala,
Gure Jainkoak beti
begira dezala.

Mañex Etchamendy

Maire, Esterençuby (1933)

Gure Almanakan agertua (1934)

ESKUALDUNEN BATASUNAZ

Airea: *Lili bat ikusi dut baratze
batean.* (1)

1/ Nahiz ez dutan nehoiz
eskolarik hartu,
Egun Ernandorena
behar dut aipatu.
Jauna, nahi dauzkitzut
bi pertsu kantatu;
Hutsik egiten badut,
zuk, otoi, barkatu!

2/ Lorez lore dabilan
erlea iduri,
zu ere herriz-herri
zauzkigu ibili,
Ezagutzak eginez
batzu ta bertzeri.
Gutaz zer arta duzun
hortan da ageri.

(1) Airea: Kantuz, 53; 69 orri-aldean.

3/ Orroit gira zu ganik
nola entzun dugun:
«Arbasoen oidurak
begira ditzagun!»
Bai, Jauna, hortakotzat
badukezu lagun,
Nahi baigira izan
zinezko eskualdun.

4/ Eskualdunen usaiak,
bai eskuara ere,
Zori-gaitzez, haundizki
kolpaturik daude.
Gaixoak sendo diton
esperantzan gaude;
Zuzen da izan dadin
norbait heien alde.

5/ Badira bai hortako
bermatzen direnak,
Bereziki eskuara
artatzen dutenak,
Bai aiten ohidurak
beiratzen tuztenak.
Erran dezagun beraz:
«Gora eskualdunak!»

6/ Eskualduna bizi da
Eskual-herrietan,
Bai eta're han nunbait
Arrotz-tokietan.
Eskual-herritik urrun,
sos egitekotan;
Beste batzu dabilta
arimen onetan.

7/ Eskualdunak munduan
hedaturik hola,
Orok bat egin gabe,
ez gaizke kontsola;
Izpirituz bederen
egin daike hola,
Zainetan balinbada
Eskualdun odola.

8/ Ernandorena Jauna,
zure lagunekin,
eskualdunen gidari,
oro elgarrekin,
Hau dautzuet galdetzen
errespeturekin:
Gure anaien berri
ez daikenez jakin!

9/ Anaien batasuna
altxa dadin gora,
Orroitzapen hori maiz
jiten zaut gogora:
Jakin ahal bagintza
berriak ardura!...
Nun eta nola diren
dugu arrangura.

10/ Guk badugu «*Herria*»
denen zerbitzuko,
Itsasoz bestalderat
berrien heltzeko.
Hantik baliz ordain bat
guri igortzeko,
Zer zoriona laiken
hori guretako!

11/ Orai erran behar dut
zer dutan pentsatzen.
Han Eskual-herri zonbait
ote den gertatzen!
Har-gatik ez gituzte
gu ere ahazten.
Beharduner dituzte
bihotzak zabaltzen.

12/ Airatzen ahal banintz
urtzoa bezala,
Bisitaz joan nindaike
eta berehala.
Bainan hain da ez-deusa
bai ene ahala!
Jainko onak guziak
begira ditzala.

Mañex Etchamendy
1946-eko buruilean

SOSAREN ESKLABOTASUNA

(*Sosa mintzo*)

- 1/ Deitua gatik Urre
Zilar eta Kobre,
Eni emana gatik
edozoin kolore,
Lehenago banuen
denetan ohore,
Orai ez gehiago
estimurik ere...

- 2/ Lehen gazte zuhurrak
jan-edanetako
Nitaz griña bazuen,
berdin beztitzeko.
Dotea segur zuen
ezkontzen zeneko,
Familia eder bat
geroan hazteko.

3/ Aitatxo hor jarria
ateaz kanpoan
Pipa zango luxe bat
emanik ahoan,
Amaxo're han baitzen,
ni haren altzoan,
Biek nindabilaten
Karesa goxoan.

4/ Egun garbi ederra
zelarik neguan,
Ekitatzen ninduten
iguzki beroan.
Gero amaxok sartuz
lihozko xakuan,
Pausuan jartzen nintzan
kutxaren xokoan.

5/ En'egoitza goxotik
hor naute kasatu;
Geroztik nehun ere
ezin naiz pausatu:
Gau-egunak jauzteka
behar tut pasatu.
Nik ez dakit jendea
zerk duen zoratu.

6/ Zoramendu hortarik
jenden argitzeko,
Hitz bat erran nahi dut
denek aditzeko:
Gaizki erabiltzetik
ni begiratzeko,
Guziek har nezaten
obra onetako.

7/ Ostatu merkatutan
gizonak nabilka,
Herrestan, edarian,
beti igerika:
Traidorekerietan
zonbat itzulika!
Zoin dohakabe nizan
ez dirot esplika.

8/ Oraiko andrekin dut...
kasik etsitzeko:
Botaka nabilate
moden segitzeko.
Tinduz emokatuak,
erdi-beztitzeko!
Zer etxekandre-gaiak
menaian sartzeko!

9/ Zuhurtzia gaixoa,
nun ote habila?
Hi galduz geroz, nitaz
ez die axola!
Hanbat gaixto berentzat:
ni ibiliz hola,
Zaluxko joko die
errekaren zola.

Bortuko Aitatxi (1949)

Herria-n agertua Bazkoz

NEVADAKO ARTZAINARI (I)

Airea: *Andereño bat ikusi nuen.* (1)

- 1/ Amerikako mendi gainetik
artzain bat dugu aditu.
Bere atsegin bai eta penak
kantuz dauzku esplikatu.
Gazte maitea, zure solasez
batere ez naiz harritu.
Gazte denboran, toki berean,
ni ere bainaiz kurritu.

- 2/ Zure kantuen oiharzunak du
inarrosi Iramendi.
Umore ona eta kuraia
badauzkatzu beti handi.
Zure pertsuak ikasi tuzte
orai denek hemen gaindi.
Jainko onaren grazia beti
zure lagun izan bedi.

(1) Airea: Sallaberry, 220; 121 orri-aldean.

3/ Amerikako desertu beltzek
etzaituzte zu lotsatzen.
Ardien zaintzen, pertsu moldatzen,
duzu denbora pasatzen.
Zure sor-leku maiteaz zira
naski ardura orroitzen.
Orduan aise hasperen zombait
bihotzean zaitzu sortzen.

4/ Denbora ona eta elurra
ere gertatzen denean,
Zure kozina egiten duzu
gusturik hoberenean.
Egunaz kurri ibili eta
gero gaua jin denean,
Zure ohia prest-presta duzu
berdin lurraren gainean.

5/ Zure ganbara ez du argitzen
ez eletrika-argiak.
Supaster xokoño hura ez du
ikusten zure begiak.
Zeru gainetik mundu zabala
argitzen du ilargiak:
Haren medioz egiten tutzu
gauaz zure itzuliak.

- 6/ Guri irri bat ein-arazteko
hau ere duzu aipatzen:
Koziner finak beribiletan
ikusten tzula pasatzen.
Artzain gaizoen modura heiek
ez dira aise bihurtzen.
Baratzetako lanari ere
sudurra dute zimurtzen.
- 7/ Moltsa luzea beteko duzu
laster ene iduriko.
Orduan hunat, Eskual-herrirat,
etzireia itzuliko?
Norbaitez hemen agradaturik
lagun bat duzu hartuko.
Nik kontseilu bat zuri emanik,
etzaizu ez gaitzituko.
- 8/ Izana gatik horgo andreak
eder eta pinpirina,
Nik aditzea badaukat beti,
hobe dela eskualduna.
Nahi baduzu izan dezazun
lur huntako zoriona,
Hauta zazu bai nexka prestu bat
eta girixtino ona.

Bortuko Aitatxi (1949)

NEVADAKO ARTZAINARI (II)

Airea: *Oihan beltzian zuñen eijer den.* (1)



- 1/ Ene herritar gazte maitea,
zuri gira gu behatu.
Toki hortako penak zer diren
oro ditutzu aitortu.
Beste Eskualdun anitzek ere
hori daukute salatu.
Penan direnak nahi nituzke
ein-ahala kontsolatu.

(1) Riezu, 8.

- 2/ Nihau ez-deus bat izanagatik,
huna zonbait hitz lañoki,
Kontseilu ona ez baita behar
utzi sekulan banoki.
Atsegin nuke, askok bezala
ongi mintzitzen banaki,
Bakotxak dakin egia hura
erran behar du goraki.
- 3/ Eskualdun anitz Ameriketan
artzaingoan dira jartzen.
Hor kausitzen den bizi dorpeaz
anitzak dira lotsatzen.
Mendia utzi eta hirian
zer ote zeie gertatzen?
Ez dire heiek zuek bezala
bake on hortaz gozatzen.
- 4/ Erran daukuzu: «Penagarri da
hemen igande eguna.
Meza-sainduaren entzutea
guk ezin dezakeguna!»
Bainan bihotzez balinbaduzu
beti borondate ona,
Jainko onaren grazia segur
jautsiko da zure gana.

5/ «Desertuetan bakartasuna
dela hain lotsagarria!»
Goiti zerurat behatu eta,
zer gauza xoragarria!
Izar eder hek dirdiran daude,
izarrak ta ilargia...
Hantik gu ganat begira dago
heien guzien Nausia.

6/ Betleemeko harpe batean
Salbatzalea da sortu.
Hango artzainak, aingeru batez,
ditu bere ganat deitu.
Heien agurra nahi izan du
lehenik errezebitu.
Artzainak zonbat maite dituen
ez dia ongi frogatu?

7/ Eskual-herrian, mundu guzian,
orotan da Jainko bera.
Ez dugu zeren izan dezagun
nehork urgulu sobera.
Uros ditake bizitzen dena
haren legen arabera.
Jeiki-erorka pasatzen dugu
mundu huntako denbora.

8/ Beti bidian goatzi oro
munduan sortuz geroztik.
Zerura heldu nahi ginduke
bakotxa gure lekutik.
Jesusek eman dauku Ama bat
gu atxikitzeke xutik.
Ama Birjina, zuk har gaitzazu
guziak zure eskutik.

9/ Jainko onaren baitan guziek
behar dugu fidantzia.
Harek segurki ezagutzen du
ongi gure flakezia.
Jesus otoiztuz, elgar maitatuz,
galde dezagun grazia:
Zori-onean goza dezagun
Eternitate guzia.

Bortuko Aitatxi. (1949)

NEVADAKO ARTZAINARI (III)

Airea: *Lili bat ikusi dut baratze
batean.* (1)

1/ Nevadako artzaina,
zure lagunekin,
Zuekin mintzatzeaz
anitz dut atsegin.
«Carson»-eko menditan
zer duzuen egin,
Esplikatzera noa
bozkariorekin.

2/ Zure azken pertsutan
dautazu aipatu:
«Guk egin ihiziaz
ez egin espantu...»
Holakorik ez baita
oraino gertatu,
Gauza hori nahi dut
pertsutan agertu.

(1) Airea: Kantuz, 53; 69 orri-aldean.

3/ Hartzak malur eginik
zure ardi tropan,
Ederki enganatu
duzu zure «tranpan».
han zagolarik kexu,
jarri zaizko miran
Eta zonbait pirola
sartu haren tripan.

4/ Hiru hartz sartu dira
beste artaldera,
Han eginen zutela
gustuko afera.
Kaiet-ek, ttutta-beltxa
harturik eskura,
Hartz-ama botatu du
lau zangoez gora.

5/ Hartz-ume heiek aldiz,
ama hilez geroz,
Arbola batetarat
igan dire airos.
Amaren doluz hantik
ari ziren orroz;
Kaiet-ek bota ditu
biak bira tiroz.

6/ Artzain batek hiru hartz
oren batez hilik,
Hori aipatu gabe
nor egon ixilik?
Mañex berearekin
han baitzen bipilik,
Lau hartz ezarri tuzte
metara bildurik.

7/ Orain arrantxo hortan
badute pausia,
Artzainak, Bortiarrek,
bai-eta nausia.
Batita, izan zazu
hotan fidantzia:
Ongi zainduko dute
artalde guzia.

8/ Orotan hedatu da
nik uste Depexa:
Ihizin ein dutela
gaitzeko helexa.
Artzain maiteak, hori
ez da lan errexa.
Nik laudaturik ere
etzaiztela kexa.

9/ Elgarren estimua
atxiki dezagun.
Bake-amodioan
dautzuet nik egun.
Bai, izan gaiten beti
eskualdun-fededun,
Zeruan ere elgar
ikusi dezagun!

Bortuko Aitatxi. (1949)

ITSASOAZ BESTALDEAN DIREN
ESKUALDUNERI ESKERREN
BIHURTZEKO

Airea: *Andereño bat ikusi nuen...* (1)

1/ Berriketari xarmegarri bat
horra nun zaukun etorri.
Buenos-Aires Benezuelatik
hunat daukute igorri.
Holako baten eskuratzea
anitz da estimagarri.
Berriketari maitea, zuri
bihotzez ongi-etorri!

2/ Amerikatik bidali dute
Ernandorena Jaunari;
Ernandorena Jaunak leialki
hel-arazi dauku guri.
Erran zahar bat bada eskuaraz:
«Oilo gosea kantari!»
Ni ere Jaun hek goretsi nahiz
lotzen naiz neure lanari.

(1) Airea: Sallaberry, 220; 121 orri-aldean.

- 3/ Zer berri onak izan ditugun
erran behar dut orori.
Hango anaiak fidel daudela
eskualdunen banderari.
Ikas-etxeak edo eskolak
omen dituzte zer nahi,
Gure eskuara erakasteko
nahi duten guzieri.
- 4/ Haritz ondoen ezkurretarik
beti sortzen da landare.
Eskualdunaren arraza, nasai,
hedatzen zauku han ere.
Hola segituz ez nindaiteke
ez ni estona batere,
Ameriketan Eskual-herriak
laster izaiten balire.
- 5/ Anitz atsegin egingarri da
orai jakiten duguna:
Aiten oidurak fermu atxikiz
bizi dela eskualduna.
Gure mintzaiaz elekatzeko
hemen ahalgez dagona
Eskuara ongi estimatzeko
joan bedi hoikien gana.

6/ Hango berrien guri heltzeko
igorri dute *Argia*.

Gainetik eta behereraino
dena eskuara garbia...

Amerikatik *Argia* eta
Eskual-herritik *Herria!*

Batasunaren atxikitzeko
guretzat zer lotkarria!

7/ Bai zorigaitzez jakin duzue,
gure anaia maiteak,
Zer hersturetan eman gituen
gerla horren izaiteak.

Gose direnak ez tu asetzen
gerlaren egitateak:

Jende guzien uroostasuna
eiten du karitateak.

8/ Berriez eta karitateaz
ere zirezte orroitzen.

Zinez eskualdun eta bihotz-dun
gure alderat agertzen.

Hemen sofritzen duten jendeak
dituzie sokorritzen,

Gure eskerrak bihotz guziaz
daukitziegu bihurtzen.

- 9/ Beste anaia batzu baitugu
urrun arrotz-herrietan:
Afrikan, Xinan, Ameriketan,
erresuma guzietan.
Sor lekuaren amodioa
badaukate bihotzetan.
Karitatea egiten dute
heiek ere arimetan.
- 10/ Misionest heiek ez ditut uzten
aipatzea ez balioz.
Salbaitako heien obra da
oroz gainerik balios.
Beren bizia hartua dute
anixko sofrikarioz.
Oro ixilik jasaiten tuzte
Jainkoaren amodioz.
- 11/ Jenden artean gertatzen diren
makur eta desmasiak,
Egiten ditu amodio ta
errespetu eskasiak.
Gauden bihotzez gu Eskualdunak
beti elgarri josiak,
Bake gozo bat eman dezaukun
Zeruko gure Nausiak.

Mañex Etchamendy (1949)

Herria-n agertua.

XAPELKETA

- 1/ Nahiz ez nizan pertsularia,
nahi nikezi mintzatu.
Pertsularien egun ederra
neure maneran aipatu.
Donibaneko hirian dira
elgarrekilan gertatu.
Heien pertsuek oro gituzte
ezin hobeki gustatu.

- 2/ Garazi huntan gudukatzeko
hautatu dituzte zortzi.
Egin ahala ein dute elgar
bizirik nahiz ihortzi.
Bainan lan horrek ez bide deie
makur gaixtorik ekarri.
Adixkideki eman dituzte
denek eskuak elgarri.

3/ Mende huntako josteta tzarrek
arima dute zikintzen.
Pertsularien solas garbiek
bihotza dute arintzen.
Trixe direnak balinbadira
heien aldean gertatzen,
Irri batekin bozkarioa
denetan dute ezartzen.

4/ Jende guzien agradatzeko
pertsulari onak dira.
Eskualdun besten distiratzeko
lore ederrenak dira.
Hortako diren gauza guziak
heldu baitzauzku eskura,
Eskual-herria ohora bedi
beti atxikiz eskuara!

5/ Beraz xapeldun nor gertatu den
orai erran nahi nuke.
Oro berdintsu diren denboran
bat hautatzea da neke.
Gure nausiek jujamendua
xuxen egiten baitute,
Aldi huntako Mattin Ahetze
lenbizi ezarri dute.

6/ Xapelik gabe gelditzen dena
orai kontsola dezagun.
Orok xapela nahi dutela
ez dea aise ezagun?
Beste urteko elgarrendako
egonen dira barrendun...
Bakotxa bere aldian segur
izanen dira xapeldun!

Mañex Etchamendy (1951)

Herria-n agertua.

ERRAXU, KOXE

Airea: *Urtzo xuria, errazu.* (1)

The musical score consists of five staves of music. The first staff is in treble clef with a key signature of one flat (B-flat) and a time signature of 2/4. The subsequent four staves are in bass clef with the same key signature and time signature. The music is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes, and rests. The piece concludes with a double bar line on the fifth staff.

(1) Airea: Echeverría y Guimón, 33.

- 1/ —«Erraxu, Koxe, errazu,
Norat joaiten xira, xu?»
—«Hantxe mendian ikusi dixit:
Zonbait bas-urde baduxu...
Ihaut-irian xitxia
Arras on izanen duxu!»
- 2/ Koxe badoa bakarrik,
Ez baitu deusen beldurrik.
Elurra lodi izana gatik,
Han da lekura heldurik.
Bas-urderik ez... xerriak
Zauden metara bildurik.
- 3/ Badoa Koxe abila
Etxerat ixil-ixila.
Beste gizonak ere ohartu
Han nunbait zerbait bazela.
Oro kartuxaz beterik
Badoatzi berehala.
- 4/ Ikusten tu Bordaxurik...
Ez guti estonaturik,
Eta galdetzen: «Norat zoazte,
Oro hola harmaturik?
Gaixtagin zonbeit badela,
Nik ez dut hortaz dudarik!»

5/ —«Egun hunat ihizira
Prisa-prisan heldu gira.
Hara hantxetan basa-urdiak...
Orai hurbilduak gira!
Bordaxurik errepostu:
«Hek gure xerriak dira!»

6/ Batek irri, bestek irri,
Oro so zauden elgarri,
Ikusiz hola enganaturik
Irria jauzten zaut eni.
Denek irri egitea
Ez deia bada konbeni?

Mañex (1954)


N.B. — Kantu huntako lehenbiziko koplak xuka emana da. Liburu huntan kasu bakarra da. Kantu hau ez da nehun agertu orai arte

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (Aitua).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatuba!, Anton Kaiku. (Aitua).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (Aitua).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (Aitua).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (Aitua).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (Aitua).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (Aitua).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (Aitua).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (Aitua).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (Aitua).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (Aitua).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (Aitua).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (Aitua).
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.

32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverría*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. *Bertsolari-txapelketa (1-I-1965)*.
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsularia.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*.
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.

83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka.
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I.
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II.
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. — Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria.
108. *Mattin*: Ahal dena.
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.



AUSPOA
LIBURUTEGIA